



ARGIA



Ongi etorri Gerra Hotz berrira

24-31. orriak



***"Emakume pilotariak
mutilekin alderatzea
akatsa da"***

32 | MAITE RUIZ DE LARRAMENDI



***Baginen bagara:
emakume artisten
ikusgarritasun ezaz***

44 | KULTURA



LARRUN #271
Intersexualak

TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat
Santi Cobos presoaren ahotik

Zigor Olabarria Oleaga

16€

+ 4€

bidalketa gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

azoka.argia.eus

943 37 15 45

Santi Cbosek (Leon, Gaztela, 1968) bizitzaren erdia eman du preso. Pairatu ditu torturak, jipoiak, muturreko isolamendua, FIES sailkapena; burutu ditu hamaika protesta eta ihesaldi saiakera, bahitu ditu funtzionarioak eta poliziak. Bidean, Euskal Herriarekin adiskidetu da. Gordinkeria, umorea, gorrotoa, samurtasuna, hausnarketa nahasten dira Santiren lekukotasunean; bere bizipenez harago, espetxe-sistema ezagutzeko kontakizuna da berea.

212 orrialde

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
WOLFGANG SCHWAN / GETTY IMAGES

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | SONIA GONZÁLEZ
- 21 | AINGERU EPALTZA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | IRATI TOBAR

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA: JOKIN URAIN
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



44 | BAGINEN BAGARA.

Donostiako San Telmo museoak erakusketa antolatuta du bere gordailuan zituen emakume artisten lanekin, eta ikerlana ere burutu du, lan eta egile hauek itzalera zerk eraman dituzten aztertzeko. Jone Alaitz Uriartek erakusketa horretan barneratuko gaitu, museoek eraikitzen dituzten kanon ustez "neutroei" buruz hausnartuz eta zehazki erakusketa honen argiak eta itzalak baloratuz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

"Festaren kapitalismoa"ren sinbolo diren Olinpiar Jokoei erresistentzia Aubervillierseko baratzeetatik

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | ISABEL ALEMAN

"Duela ehun urte Amaiurren egon ziren lau diputazioak, ez dakit aurten etorriko diren"

Miel A. Elustondo

24 | INAZIOARTEA

Oldarraldi militar fabrikatuak eta hauen arriskuak Ukrainan

Asier Blas

32 | KIROLA | MAITE RUIZ DE LARRAMENDI

"Piztia arrarotzat hartzen gintuzten, baina orain emakumeon pilotarekin gozatu egiten du jendeak"

Eñaut Agirrebengoa

36 | EUSKARA | IRAETA ETA AIZARNA AUZOAK

Etxeak eraikitzeak euskarari nola eragiten dion pentsatzen al dugu?

Danbolin / Onintza Irureta

Jabetza

Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Ion, Jakes, Unai

Preso eta iheslari politiko guztien itzulera aldarrikatu dute berrehun bat lagunek ostiralean Frantziako Estatuak Baionan duen egoitzan. Bakegileek eta Bake Bideak deiturik, zenbait kide teilatura igo dira eta beste batzuek beso eta lepoak kateatu dituzte. Parisetik ez dela keinurik ikusten salatu dute, eta fokua gatazkaren ondorio krudelenetako batean jarri dute bereziki: Ion Parot (71 urte) eta Unai Parot (64 urte) anaiek eta Jakes Esnalek (71 urte) 32 urte daramatzate espetxean. Kondenen aplikaziorako epaileek baldintzapeko askatasuna onartu diete, baina ministerio publikoa da horri uko egin eta bizi arteko espetxe zigorra ezartzen ari dena.



Aroztegiko lanak, legez kanpo

ERREDAKZIOA

Herriarrek eta Baztango Udalak esandakoa berretsi du Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epai batek. 2021eko maiatzean abiatutako Aroztegia urbanizatzen has-teko lanak legez kanpo egin zituzten.

Iazko abenduaren 31n eman zuen Aroztegiko lanen esleipenaren inguruko ebazpena Nafarroako Auzitegi Nagusiak, eta orain eskuratu du epaia Baztango Udalak, *Erran.eus* hedabideak jakinarazi duenez. Epaia arabera, Aroztegiko urbanizazio lanak hasteko TEX enpresari egindako esleipena ez da baliozkoa.

2021eko maiatzean hasi ziren Aroztegiko urbanizazio lanak, eta Baztango Udalak azaldu duenez, behin eta berriz adierazi zuten herriarrek zein Baztango Udalak berak lan horiek egiteko esleipena ez zela baliozkoa eta legez kontrakoa zela lanen hasiera.

Udalaren arabera, Nafarroako Kontratu Publikoen Epaimahaiaren ebazpena berretsi du horrela Auzitegi Nagusiak, hark baldintzen inguruan LAB sindikatuak aurkeztutako helegiteari arrazoia eman baitzion.

**Proiektuaren
aurkako ekintzaileei
20.000 euro eskatu
zizkieten isun eta
kalte ordainetan**

Iazko apirilaren 8an hasi ziren Lekarozko herrian luxuzko 228 etxebizitza, 126 logelako hotel bat, spa gun bat eta golf zelai bat egiteko Aroztegiko proiektuaren lanak, Palacio de Aroztegia SM enpresak aginduta. Herriarrek lanak

egin behar zituzten lurretan egindako kanpaldiak 11 egun iraun zituen eta lanak gelditzea lortu zuten.

Ondorio legalak izan ditu proiektuari aurre egin izanak. Aroztek herri ekimeneko kideek jakinarazi zuten, maiatzean Elizondon egindako manifestazioaren biharamunean jakin zuten hamar ekintzaile inputaturik zeudela, eta ondoko asteetan beste 25 lagunek jaso zituzten isun administratiboak. Guztira, 20.000 euro eskatu zizkieten isun eta kalte ordainetan.

Urtarrilaren amaieran sei herriarrek deklaratu behar izan zuten proiektuaren aurkako desobedientzia ekintza egiteagatik. Era berean, *Ahotsa.info* eta *Ekinklikeko* kazetari bana mozal legeaz zigortu zituzten iazko irailean, protesten jarraipenean "agenteak identifikatzea errazten duten irudiak publikatu izana" leporatuta. ●



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Kafetegia



ARITZ GALARRAGA

Bizitza honetan gehixeago gustatzea gustatuko litzaidakeen gauza bat da kafetegia. Ea, azal dezadan ondo: gustatzen zaizkit kafetegiak, zer esanik ez izena ematen dien edaria, ahal dela halako batean lotzen ditut zitak; baina, saiatu arren, ezin izan dut sekula kafetegietan irakurri, adibidez, are gutxiago idatzi, elementu gehiegi daude nire arreta bereganatzen dutenak, hasteko kafe –edo dena delako– edaleak eurak. Ez naiz, ondorioz, eta nire zoritxarrerako, kafetegi irakurle-idazlea. Beste bat da Antoni Martí Monterderen kasua, zeinak idatzi baitzuen *Poética del Café* saiakera esanguratsua.

Bere tesia da kafetegiak gabe ezin izango litzatekeela modernitateak ekarri zuen idazketa eta, are gehiago, modernitatearen ideia bera esplikatzeko. Modernitatea bada hitzaren zibilizazioa, mendebaldekoa izan bada, hainbeste denboraz, elkarriketaren kultura, da kafetegietako bizitzak hartu duelako leku zentrala. Kafetegia baita leku bat, espazio bat, instituzio bat, izena ematen dion edaria edateko tokia baino puskaz harago doana: bizitza arruntaren etena gertatzen da bertan, eten horretatik hain justu bizitza bera pentsatzeko aukera emanek. Ez da hainbeste errealitatetik apartatzea, baizik eta distantzia hartzea, distantzia kritiko, ironikoa, bakartasunari ihes egiteko, elkarrekin pentsatzeko, hiria biziartzeko. Josep Plak idatzi zuen: “Dena gertatzen zen Kafetegietan, eta Kafetegietan gertatzen ez zena ez zen existitzen. Kafetegiaren gainbeherak berarekin dakar zibilizazio oso baten gainbehera”.

Kafeak dakar, halaber, eta hedaduraz kafetegiak, adimenaren kitzikatzea, esna-aldiaren luzatzea, heterodoxiaren biziagotzea. Beste debate bat da kafeak hutsa, ebakita, esnearekin behar ote duen –Borgesentzat azken hori omen zen nahasketa gaindiezina–. Gurean, ordea, ez ote garen izan tradizionalki kafetegi baino taberna zaleak. Zer nahi duzue, hori du bere merituen artean kalimotxoa asmatu izanaren herria izateak. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Heriotza

Karmele Aierbe Muxika hil da. Ataunen 1951n jaioa, gaztetatik euskararen eta Euskal Herriaren aldeko militantzian engaiatu zen eta hainbat bider atxilotu eta torturatu zuten. HBko mahai nazionalako kide ohia eta Euskal Herrian Euskaraz-eko koordinatzailea izan zen, baita irakasle ere, Ataun eta Seguran.

Mozal Legea

2019an BBVAn egindako protesta baten harira, sei pertsona identifikatu zituen Ertzaintzak, eta mozal legea aplikatuz horiei isuna jartzea proposatu zuen. Sei kideetako bat absolutu du berriki Gasteizko epaile batek, ekintzari “legezkoa, zilegizkoa eta eraginkorra” iritzirik, eta adierazpen askatasuna mozal legearen aurretik jarritz.

Espekulazioa

Aldi honetan Ahatsan (Nafarroa Beherea) burutu dute espekulazioaren aurkako mobilizazioa. Herriko bi etxebizitza 630.000 eta 500.000 eurotan salgai izana salatu dute 200 bat lagunek.

EKONOMIA

Finantza kontua edo justizia soziala



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Euskal Finantza Kontseiluak pasa den urteko diru bilketaren berri eman du. 2020an baino gehiago bildu da, eta balorazio ezin baikorragoa da. Datorren urtean politika publikoak egiteko diru gehiago izango dute instituzioek.

Ez dute gezurrik esan. Baina egin daiteke bestelako irakurketarik, dirua nondik jaso duten begiratzuz gero, adibidez. Enpresa-irabaziek eta ondare pribatuaren metaketak zuzentzen dute ekonomia, horiek dira ardatza. Baina paretik desagertzen dira zerga politika antolatzeko. Lansarietatik 6.114,3 milioi euro jaso ziren iaz, enpresetako irabazietatik, berriz, 1.155,1 milioi. Erreforma erreforma, lansarietara bideratzen dena sortzen den aberastasunaren %50 baino gutxiago dela kontuan hartuz, bilketa ez da bidezkoa, ezta ahal bezain bestekoa ere. Nafarroako datuak argitaratzean ikusiko dugu, baina antzera. Fiskalitatea enpresak erakartzeko erabiltzen da han eta hemen, langileen bizkar utziz politika publikoak finantzatzeko zama.

Munduko Diru Funtsak Espainiako Estatuko lan erreforma txalotu du, baina ez dago gustura kontu publikoekin. Gehiegizko zor publikoa, pentsioen iguera handia eta desoreka fiskalak aipatu ditu, eta diru bilketa handitzea eskatu du. Aholkatzen duen bidea: BEZari eta ingurumenari lotutako zergak igotzea. Hau da, kontsumoa gehiago zergapetzea, finantziario premien aurrean gutxioi ardura bera egotziz, izan langile, izan langabetu edo BBVAko jabe.

Ekonomista neoklasikoek ekonomia merkatura mugatu zuten bezala, gobernu neoliberalak zerga politika kontabilitate ariketa huts bihurtu dute herritarren begietara. Finantziario iturrira mugatuz, bere jatorrizko funtzioa ezkutatu dute: aberastasuna banatzea. Guk ere, sarritan, finantziarioan oinarritzen ditugu gure eskaerak eta proposamenak, baina benetako auzia zera da: bidezkoa den ala ez. ●

ANALISIA



Pederasten boterea

URKO APAOLAZA AVILA

Eliza katolikoko ordezkariak haurren kontra hamarkada askotan egindako sexu-gehiegikerien auziak eztanda egin du Euskal Herrian. Nafarroan 1948 eta 1985 artean gertaturiko 60 kasu identifikatu ditu NUPeko ikerlari talde batek, baina azaldu dutenez “icebergaren punta” baino ez da. Foru gobernuaren aginduz egindako txostenean erasotzaileen kopurua –gutxienez 31 ustezko pederasta– eta profilak ageri diren arren, haien izenak ez dira publiko egin. Aldiz, biktimen testigantzen zatiak bai.

Bestetik, duela gutxi jakin dugu Ertzaintza beste 13 kasu ikertzen ari dela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zentro erlijiosoetan gertaturikoak –Josu Erkoreka Jaurilaritzako Segurtasuneko sailburuaren esanetan 30 lirake ikertzen ari diren kasuak–. Kasu horiek azaleratu zituen *El País* egunkariak Bilboko eta Errenteriako biktima banaren testigantza gordinak argitaratu ditu. Ipar Euskal Herrian ere 25 adin txikikori egindako abusuen berri izan genuen, Frantziako Estatuan batzorde independente batek azaleratutako 330.000 biktimen artean.

Abusatzaileen inguruko datuak hor daude, baina foku mediatikoa biktimen kontakizunean kokatu da nagusiki. Oso gutxitan ageri zaizkigu ustezko pedofiiloen izenak hedabideetan, eta halakoetan eliz erakundeak berehala saiatu dira beren burua oskol sanitario batez babesten. ARGIA Manuel Estomba Derioko apaiztegi zuzendari espiritualaren izena azaleratu genuenean bezala: Bilboko Gotzaindegiak esan zuen informazio hori ez zela berria eta “barne ikerketa” abiatua zuela lehendik ere.

Pederasten babesleak zein izan ziren jakitea ere ez da zaila, erakunde oso baten esalpean egindako delituak baitira. Elizako hierarkian gora eginez, gertatzen ari zena zekitenen zerrenda luzea izan daiteke. Alemanian, adibidez, Municheko artxidieziak abiatutako ikerketak erakutsi du Joseph Ratzinger aita santu emerituak bazuela gehiegikeria horien berri eta estali egin zituela artzapezpiku zenean.


Hainbat herrialdeetan egindakoa ordaintzeko Eliza pausoak ematen hasi den bitartean –Frantziako biktimak indemnizatuko omen ditu bere ondarea salgai jarritz–, Espainiako Gotzainen Konferentziak uko egin dio kasuak ikertzeari, bere “eskumena” ez delako, eta estatuko fiskaltzak 50 kasu eskas jaso ditu. Orain arte apenas egon da epaiketarik eta kondenarik. Botere-harremanak baliatuz egindako gehiegikerien zigorgabetasunak hor jarraitzen du, Elizaren botereak hor diraelako. ●



50.000

euro eskatu dizkio Amenabar enpresak Berangoko bizilagun bati, "enpresaren irudia zikintzeagatik".

Berango Lurraren Defentsan taldeko kide bati irainak eta kalteak egitea leporatu dio eraikuntza-enpresak. Irratsaio batean pertsona horrek esandakoak oinarri hartuta abiatu du Amenabarrek prozesu judiziala.



1,592

1,592 eurora iritsi zen otsailaren 15ean gasolinaren batez besteko prezioa Espainiako Estatuan, litro bakoitzeko, eta zifra horrek aurreko marka guztiak gainditu zituen, errekor historikoa ezarriz. Dieselaren prezioak ere aurreko langa guztiak gainditu zituen: 1,476 euro litroko.

"Niri espetxe urteak gehitzeko estatu operazio bat abian da"

PABLO HASÉL

Lleidako rap kantaria bere abestietako letrenatik atxilotu eta espetxeratu zutenetik urtebete bete den egunean lortu dute elkarrizketa egitea.

LA DIRECTA (2022-02-16)



**"URTE ASKOTAKO
MANIPULAZIO ETA
GEZURREN ONDOREN,
AHT-REN MITOA GAINBEHERA
ERORTZEN ARI DA"**

AHT GELDITU! NAFARROA MUGIMENDUA

2022-02-19

"Erraldoien aurkako borroka da sexu heziketarena, mito guztiak oso barneratuta daude"

DIANA IBARGUTXI ABARRATEGI

Sexologian eta psikologian aditua da eta sexu heziketa eskolak gidatzen ditu haur, heldu eta edadetuekin.

AIARALDEA.EUS (2022-02-14)



Inertzia gainditzten



DIANA FRANCO

Pasa den astean Hezkuntzan Librezale taldeak, *Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarriak* txostenaren baitan, zenbait iruzkin partekatu zituen digitalizazioari lotuta. Taldeko askok txostenaren “musika” oro har gogoko dutela adierazi zuten telegram bidez duten taldean. Baina, sakonki irakurtzen hasita, txostenak zenbait gauza hobeto zehazteko beharra duela zioten eta ekarpen benetan ederra partekatu dute taldearen webgunean. Horko zenbait ideiatatik tiraka nabil, idatzi ahala nik ere barnerratu eta hobeto ulertuko ditudalakoan. Adibidez, oso interesgarria da ahalduntze digitala eta konpetentzia digitala bereizi dituztela. Konpetentzia digitala erabiltzaile izateari zuzenduta dagoen kontzeptuarekin harremanetan dute eta ahalduntzeak berriz, eragile izateari loturiko ideia barnerratzen duela ikusten dute. Horrekin ulertzen dudana zera da, hezkuntzan sustatzen dugun digitalizazioaren arabera, errealitatean eragiteko tresna gutxiago edo gehiago emango dizkiegula ikasle zein irakasleei. Agertu duten beste kezka bat da hezkuntzan teknologiararen areagotzea bultzatu nahi dela, teknologia digitala izatez onuragarria balitz bezala. Zentzu horretan, digitalizazio gehiago onura gehiagorekin lotzea saihestu behar da, funtsa ez baita digitalizazio gehiago, digitalizazio hobe baizik.

Eta hemen dator auziaren muina: zelan gainditu inertzia, zelan landu hezkuntzarako digitalizazio hobeago bat?

Galdera horri erantzutea da nire ustez hezkuntzaren erronka handietako bat. Eta erantzunak txostenean bertan dauden beste osagai batzuekin harremana izango duela uste dut: tokikoa, burujabea, naturari lotua, komunitateari lotua... Azken batean, hezkuntzaren digitalizazioak ezin duelako geruza isolatu bat izan, hezkuntzaren digitalizazio hobeagoa hezkuntzaren eredua bera eraldatzen dagoen seinale izango baita. ●



Isilpeko gerrak su etenik ez

AXIER LOPEZ

Urteak, hildakoak eta desplazatuak pilatzen jarraitzen du inori axola ez zaion beste gerra horietako batek. Baina hori ez da txarrena, zazpi urte eta gero hobekuntza zantzurik ez dagoela baizik. 2015ean Saudi Arabiak sustatutako nazioarteko koalizio batek Yemen erasotzeari ekin zion, AEBen, Erresuma Batuen eta Frantziaren babes “logistikoaekin”. Bada, aurtengo urtarila izan da hilabeterik odoltsuena. Yemen Data Project proiektuaren arabera, urtarirlean Saudi Arabiako bonbardaketek 139 zibil yemendar hil dituzte, eta 287 zauritu.

Otsail hasieran Nazio Batuen Erakundeko sei langile –bost yemendar eta bulgariar bat– bahitu zituzte Arabiar Emirerri Batuen babesa duen miliziaren kontrolpeko zonalde batean. Saudi Arabiak gerran daukan aliatu nagusietako bat dira Emireerriak. Diktaduren artean ondo konpontzen dira.

Yemengo munduko krisi humanitario larriena dela dio NBek. Erakundearen arabera, 377.000 pertsona inguru hil zituzte borroken, edateko ur faltaren, gosearen eta gaixotasunen eraginez. Nazioarteko programa humanitarioak gutxitzen ari direla salatu du NBek, eta borroka-guneak, aldiz, ugartzen. Herritarrek ihesbide gutxi dute, etsai eta itsaso artean harapatuta. Gainera, Yemenen COVID-19aren laugarren olatuak jo du, eta gerrak desplazatutako ehunka mila pertsonen artean askok eta askok ez du oinarritzko zerbitzurik, komuna

edo edateko ura kasu. Gatazka hasi zenetik ia zazpi urte igaro ondoren, osasun-zentroen erdiek soilik jarraitzen dute martxan, eta, beraz, hiru yemendarretik bik ez dute osasun-zerbitzuetarako sarbiderik.

Eta bien bitartean, Mendebaldean gatazkarekiko nagusitu den jarrera da negozioa ezin dela eten. Yemengo masakrea elikatzeke, gutxienez 2017tik aurrera Bilboko portutik pasa diren armaz betetako itsasontziek kritikak jaso zituzten, Eusko Jaurlaritza ostrukarena egiten saiatu zen bitartean. Bilboko Portuko buru Asier Atutxak maisuki uztartu zituen multinazionalen bihozgabetasuna eta politikarien pragmatismoa: “Begira, arma trafikoa legezkota bada, guk lan logistikoa egingo dugu”. Zeren, bai, Saudi Arabia diktadura wahabista da, baina diru asko dauka eta Espainiako eta Euskal Herriko industriaren bezero handietako bat da. Negozioen munduan etika hippyen gauza da.

Zaharrak berri. Berriki jakitera eman dute Saudi Arabiak Espainiako suziri sorta berri bat eskuratu duela. Armak bi edukiontzitan eraman zituzten urrian Valentziako Saguntoko portutik. Espainiako “ezkerreko” Gobernua adierazi du “Yemengo gerran parte hartzen duten herrialdeek ez dutela nazioarteko zigorririk edo armak eta Poliziarentzako materiala esportatzea debekatzen duen enbargorik”. Eta horrela, erraztasun horrekin, justifikatzen da axolagabekeria sarraski baten aurrean, baita indarke-riatik etekinak lortzeko grina ere. ●

Yaganeraren azken hiztuna hil da

📷 VICTOR ALEJANDRO CORREA RUEDA

AMERIKA / Hego Amerikako yagan herriaren hizkuntzan mintzo zen azken hiztuna hil da otsailaren 16an, 93 urterekin: Cristina Calderon. Bere ahizpa 2003an hil zenetik, yaganeraren hiztun bakarra zen. Bere ezagutza gal ez zedin, yaganera-gaztelania hiztegia sortu zuen. Alabak kontatu du amak hizkuntza gorde zuela baina bederatzi seme-alabek ez zutela ikasi, "diskriminatuak izateko beldur". "Hala ere, hizkuntzaren sustatzaile indartsua izan zen.



Hezkuntza

Beste urte batez, ehunka lagun batu dira Herri Unibertsitate nazionalen. Aurten, Leioako campusean izan dira hitzaldi, mahai-inguru eta aisialdirako jarduerak, bi egunez. Mugimendu sozialistaz, pedagogiaz, neoliberalismoaz eta Gramsciz aritu dira, besteak beste.

Joko aretoak

Indarrean sartu da Eusko Jaurlaritzak eginiko jokoaren lege berria EAEn. Apustu etxeek ikastetxeetatik gutxienez 150 metrora egon beharko dute, bi joko aretoaren artean 500 metroko distantzia errespetatu beharko dute, joko areto kopurua murriztuko dute eta sarbidea kontrolatuta egon beharko da.

COVID-19

Hegoafrikaren eta Asiaren eskarari ezetza ihardetsi dio Europar Batasunak: ez, txertoen patenteak ez dituzte kenduko. Aldi berean, People's Vaccine Alliance egiturak jakitera eman duenez, EBk 55 milioi txerto dosi baino gehiago botako ditu zaborretara otsaila bukaeran, iraungitze data gaindituta.

'FESTAREN KAPITALISMOA'-REN SINBOLO DIREN **OLINPIAR** **JOKOEI ERRESISTENTZIA,** AUBERVILLIERSEKO BARATZEETATIK

1935 urteaz geroztik landutako lurak hormigoitu eta 2024an eginen diren Olinpiar Jokoetarako igerileku bihurtu nahi dituzte lekuko instituzioek. Desobedientzia eta okupazioaren bidetik dabilta megaproiektu honen aurka borrokan. Hiri batetik bestera, Joko batetik bestera, fenomeno berdinak errepikatzen dira: natura guneen suntsiketa, hiriaren bestelakotze basatia eta nola ez, sekulako dirutza publikoa bideratzea hauen antolaketara. "Festaren kapitalismoa" terminoarekin definitzen du fenomenoaren AEBetako kirolari eta ikerlari Jules Boykoffek.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Parisen egondakoak daki zenbat eskertzen diren hiri honen zurrunbiloan bat-batean agerturiko oihan, parke ala ibai bazterrak. Horietan ditugu Aubervillierseko baratze kolektiboak. 26.000 metro kuadro lur, herritarren esku. 1935ean hasi ziren lur horien lantzen, eta dioten gisara, orduz geroztik aitzina egin dute, Historia bertatik zeharkatuz: "Fronte Popularra, Bigarren Mundu Gerra, industrializazioa eta desindustrializazioa, 68ko Maiatza, metro linearen eraikuntza, 2005eko barrikadak, 2008ko *subprimes*-en krisia, koronabirusa... Parisen metropolizazioari biziraunen ote diogu?".

2024ko Olinpiar Jokoak direla eta, hormigoitu eta igerileku olinpikoa egin nahi dute bertan agintariak. Erresistentzia handituz eta gogortuz doa: okupazioak, ekintzak eta makinen blokeatzeak. Nolazpait, Lekarozeko borroka Parisen. JAD *Jardins à défendre* (defendatu beharreko baratzeak) borroka gunea abiatu zuten iragan udan, gau eta egun okupatuz gunea. "Leku hau magikoa da, geroz eta urbanizatuagoa den gune baten erdian dagoen bitxiontzi bat da. Haien logikari segi, zer geldituko zaigu hemendik hamar, hoge urtera? Gune berdeen beharra dugu, batez ere Paris batean" dio *Reporterre*-ko kazetariari jad-ista batek.

Osasunaren Mundu Erakundeak dio hiri batek bizigarri izateko gutxienez

pertsonako 10 m² natura behar dituela, hamabost minututara oinez. Aubervilliersen 1,42 m² dituzte. Iazko irailaren 2an kanporatu zituzten aktibistak, obrak hasteko. Amore ez emanik, otsailaren 2an makinei lotu ziren zortzi aktibista, poliziek atxilotu arte. Justiziaren bidetik ere dabilta megaproiektua geldiarazi nahian. Behin betiko garaipena ez bada ere, lehen garaipena jaso dute otsail honetan, PLU hirigintzako dokumentua ez duelako errespetatzen proiektuak. Lau hilabete ditu Plaine Commune elkargoak dokumentua moldatzeko.

ERRESISTENTZIA NAZIOARTE MAILAN ANTOLATU NAHIAN

Iaz Tokion izan ziren udako Olinpiar Jokoak, 2016an Rio de Janeiron, 2012an Londresen, 2008an Pekinen... Negukoak, Pekinen aurten, Pyeongchangen 2018an, Sochinen 2014an... eta horrela, lau urtero, 1896ko Atenasko lehenak arte. Datoren hamar urteenak finkaturik dituzte: Paris (2024), Milan (2026), Los Angeles (2028) eta Brisbane (2032). Hemen ez dago klima larrialdiak geldiaraziko duen ezer, festan segitzeko asmoa du NOB Nazioarteko Olinpiar Batzordeak.

"Nazioarte mailan antolaturik daude NOB eta olinpismoaren promotoreak; gisa berean antolatu behar gara" irakurri daiteke *saccage2024.noblogs.org* webgunean. Olinpiar Jokoen aurkako nazioarteko topaketak egiten dituzte

maiatzaren 21 eta 22an Paris inguruko Seine-Saint-Denisen. Aurreko esperientzietatik ikasi nahi dutelako Parisen mobilizaturikoek. Gauza berdina errepikatzen delako aldi oro: hiria erabat desitxuratzen dute, kalte sozial, ekonomiko, kultural eta ekologiko berdinak ondorioztatzaz gainera.

Alta, ez dute beti horrelako eragina ukan Jokoek. Telebista etxe guztietara sartzearekin eta Gerra Hotzaren testuinguruan hartu zuten bihurtunea: "Supremazia globalarentzako prokuraziozko gudu zelai bihurtu zen kirola", AEBetako kirolari eta ikerlari Jules Boykoffen arabera. Ikuspegi kapitalista bereari txertatuz, gaur egun ezagutzen dugunaren dimentsioa abiarazi zuen NOBeko presidente izandako Juan Antonio Samaranchek 1984ko Los Angeleseko Jokotik. Orduan hasi ziren enpresa pribatuak hitzordua diruztatzen. Beti ere, instituzio publikoetatik sekulako dirutza bideratuz: Parisekoentzat 1.500 milioi euro bideratuko dituzte -aurrekontuaren %20-; baina horiei gehitu beharko zaizkie kontabilizatu gabeko gastuak.

Naomi Klein kazetariaren "hondamendiaren kapitalismoa" nozioaren gisara -krisi, gerra, larrialdi edo nahasmen garaien aprobetxamendua gobernu eta enpresa handien aldetik, herritarren biziak eta zerbitzu publikoak arpilatze-ko-, "festaren kapitalismoa" terminoa



BARATZEEN ALDE BORROKAN.

2024an egingen diren Olinpiar Jokoen eraginez, Parisen dauden natura gune andana suntsituko dituzte, azpiegiturak eraikitzeko. Adibidez, aubervillierseko baratze kolektiboak. Obrak geldiarazi nahian dabilta herritarrak. Argazkia: basta.media

erabiltzen du Boykoffek. Helburu bera daukate biek, batean hondamendia eta bestean festa-giroa izanik ere: "Egoera normal batean ezin bideratuzkoak lituzketen politika batzuk abiarazteko bidea irekitzen diete politikariei eta hauen aliatu ekonomikoei; eta hori, prozesu demokratikoaren gainetik pasaz". Batean eta bestean, estatuaren rola ezberdina da, ordea: hondamendiaren kapitalismoak estatuaren ahultzea eta neoliberalismoaren azkartzea baldin badakar, festarenak ezinbestekoa dauka estatua, festaren antolaketarako dirutza jasotzeko. "Elkar osatzen dira, talde berean dabilta, nahiz eta bakoitzak bere unea ukan: festaren kapitalismoak bidea irekiko dio hondamendiaren kapitalismoari eta *vice et versa*".

Kontu publikoen zuloa handitu besterik ez dute egiten Jokoeak, tartean aurreikusitako aurrekontua batezbesteko %179az gainditzen dutelako. Rio de Janeirok 9.500 milioi euroko aurrekontua aurkeztu zuen baina 16.000 milioi euro kostatu zitzaizkion; Londresek 4.800 milioi eurokoa eta 10.900 milioi euro gastatu zituen; Pekinek 2.600 milioi eurokoa eta 32.000 milioi eurokoa ukan du faktura. Guztiak horrela, 1984ko Los Angelesekoak izan ezik, kontu orekatuekin ateratako bakarra. *Contrepoints* komunikabidearen *Rio: les J.O les plus chers de l'histoire, stop aux excès* ("Rio: historiako O.J garestienak, gehiegikeriarekin gelditu") artikuluak azaltzen digu "enkante" joera baten emaitza dela: norberaren hiria hautatua izateko gisan,

kostuak ttipitu eta ondorio ekonomikoak gainbalaratzen dituzte hautagai-tzaren aurkezpen-txostenean.

Geroz eta hiri gutxiago dira aurkeztu: 2004koentzat 11 ziren eta 2020 eta 2024koentzat 5. Nabarmenezkoa da 2024koentzat Boston, Hanburgo eta Budapestek kandidatura kendu behar izan zutela, herritarren presio pean, Paris eta Los Angelesen artean mugatuz lehia. Berdin aurtengo Jokoentzat: St Morritz, Munich, Stockholm, Krakovia, Lviv eta Oslok hautagaitza ezeztatu zuten, Almaty eta Pekini utziz lehia. Tendentzia interesgarria da: baliteke gerora, krisi klimatikoa zein sozio-ekonomikoa dela eta, hiriek Olinpiar Jokotarik urrun egon nahi izatea; NOB berean utziz, bakarrik. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w



DUELA EHUN URTE AMAIURREN EGON ZIREN LAU DIPUTAZIOAK, EZ DAKIT AURTEN ETORRIKO DIREN



Sabino Arana saria jaso zuen urtarrilean Amaiurko
Gaztelu Elkartek. Herriko zinpeko alkate eta
elkarteko kide Isabel Alemanek jaso zuen garaikurra.
1982an, gazteluak ageri duen monumentua jaso
zutenean, hantxe zen Isabel, jakile eta lekuko zuzen.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Sabino Arana saria jaso du Amaiurko Gaztelu Elkartek...

Gogo onez jaso dugu errekonozimendua. Duela ehun urte goratu zuten lehenbiziko monumentua Arturo Campionek-eta. Nafarroako monumentuen batzordearen asmoa izan zen, eta hantxe inplikatu zituzten lau diputazioak, ez bakarrik Nafarroakoa. Gainera, gerra baten atarian izan zen hori, pertsona haiek beren identitatea ukitua sumatzen zutelarik. Nahi izan zuten adierazi Amaiurren laurhun urte lehenago ere gure identitatea zauritu zutela, ez zuten hura atzentzerik nahi. Monolitoa goratu zuten, eta horri esker

etorri dira gero 1982an elkarte sortzea eta ondokoak. Joan den ehun urtean egin den bidearen errekonozimendua izan da saria. Duela ehun urte hemen egon ziren lau diputazioak, eta ez dakit aurtetik etorriko diren. Gonbidatuko ditugu, bederen.

Noiz izanen duzue ekitaldia?

Uztailaren 16an. Duela bortzehun urte, Amaiurko gazteluan gotortuta zeuden Noaingo gudatik eskapo etorri zirenak. Urtea iraun zuten gazteluan. Hilaren 15etik 19ra izan zen borroka eta, azkenean, 19an klandikatu zuten, ikusirik

ezin zezaketela deus egin, baitziren 200-
edo, ez gehiago. Lauaxetak, bederen,
hala erraten du: "Berrehun gudari oro
sumin"... Antton Valverdek kantatu zuen
lehenbizi, baina Pettik nola kantatzen
duen ere aunitz gustatzen zait; moder-
noagoa da.

Saria jasotzean, duela 40 urte gazteluan egindako ekitaldian izan zinela erran zenuen.

Bai. Gazteluaren parez pare bizi gara [Makitea eta Mendialdea etxeak], eta badut oroitzapena, jende mugimendua gazteluaren inguruan. Gazteak ziren,



Isabel Aleman Irungarai

AMAIUR, 1968



Mendialde etxean sortua. Erizaina izana, emagina du espezialitatea. Iruñeko ospitalean eta Baztanen ari da lanean. El Salvadorren Askapenarekin egona da 1990ean. Gaztelu elkarteko kide da, eta Amaiurko zinpeko alkate iazko Errege egunaz gero. "Gaztelua auzolanez, herria eginez" ageri du herriko karrika nagusiko etxe batean, eta halaxe azpimarratu digu: "Sabino Arana sarria herriarendako da. Elkaratearen giblean Amaiurko herria ez balitz, ez zen deus izanen. Elkartea tresna hutsa da".

monumentua goratzen ari ziren. Ordu arte, uste dut, ez nintzen gaztelu honetan inoiz egona, nahiz eta Korputz jaietan-eta prozesioak egin izan ziren honat. Apaiza nazionalista zenean, seguru. Amaiurko Gaztelu elkarte 1978an sortu zen, monumentua goratzeko asmoarekin. Nik nituen orduan 13-14 urte. Ateratzeko grina nuen, herriko bestak-eta. Beharbada besta giroa baizik ez nuen ikusten gazteluaren inguruan. Eta etxean, berriz, aitatxi [Gerardo Irungarai] ez zen eroso sentitzen gazteluaz solasean. Alkate ibilia zen, ez zuen ikasketarik baina arrunt argia zen: gure eskolako liburuak eta denak hartzen zituen —batez ere historiakoak—, eta irakurtzen zituen.

Zer oroitzapen duzu egun hartaz?

Oroitzen naiz amatxik transmititu zidana: "Kasu egin ezazu. Politikarietxek eta etorri behar dute eta igual *follo*-a izanen da. Kasu egin ezazue, kasu egin ezazue!". Meza nagusia bazen hemen, gazteluan, eta etorri ginen desfilean honat. Denbora hartan igandero irakurtzen nuen elizan, meza nagusian. Oroitzen naiz zer jendetza!

Lehenik, herrian, Carlos

Garaikoetxea ailegatu

zelarik, auto beltz han-

di batean zen. Ni ama-

txiren anaia baten

etxe atarian nintzen,

eta hantxe berean

utzi zuten autoa. Eta

jendeari baztertzeko

agintzen. "Baina hau,

zer da hau?". Intriga ika-

ragarria. Ez nuen inoiz ha-

lako jende pila ikusi Amaiurren.

Gaztelura etorri eta Timoteo Plaza,

bailarako alkatea zen orduan, eta adi-

neko jendea, ongi jantzia, trajea eta

boneta, eta mezan irakurri nuenez,

gizon bat hurbildu zitzaidan eta erran

zidan: "Zein ongi irakurri duzun!",

eta ni harro! "Horrela irakurri behar

da, yainkoa, ez jainkoa!". Ni liluratuta

horrelako jendea ikusita, eta egiten

nuen: "Baina zer garrantzi du leku ho-

nek!?".

Gaztelua aipatu eta aitatxi ez zela eroso erran duzu.

Bai. Aitatxik ez zuen deus ere kontatu nahi, baina horrek berak interesa pizten zuen gure barnean. "Zergatik ez ote du kontatu nahi?". Eta berdin gertatzen zen amatxirekin [Juanita Inda].

Solastunagoa zen, baina aunitz sufrituak ziren eskolan hizkuntzagatik, gutietsiak, gaztelaniaz ez zekitelako. Herrian, garai hartan, batean zenuen guardia zibilen kuartela; bertzean, Agerrea etxean, militarrek; plazako ostatuan ere, militarrek... Denbora batez, Amaiurren, 200 guardia zibil eta militar omen zeuden. Denak erdal-dunak. Denak. Gaztelania ez jakiteak sufrimendua ekarri zien herrikoei. Etxean euskaraz aritu izan gara beti, baina amatxik erraten zuen: "Euskara zertarako? Belatetik harat ez du baliol!". Eta, aldiz, euskaraz kantatzen zuenean-eta, ezagun zuen bere hizkuntza maite zuela. Sufritu zuela ere agerikoa zen.

Zer litzateke Amaiur, gaztelu hau gabe?

Baztanen errepidetik aparte dagoen bertze edozein herri ttikirekin alderatuko nuke. Arrunt mugimendu guttiko herria izango litzateke, arrunt auzogiroa. 250 lagun gara Amaiurren, sakabanatuak, kaskoan eta baserrietan. Beharrik, badugu ostatua, sozializa-

tzeko tokia, adin guzietako jendea elkartzen baikara

han. "Badugu", erran

dut, baina "izan dugu"

erran beharko nu-

keen, zeren orain ju-

bilatuko baita Luisa,

ostatuko nagusia, eta

hortaz dugu horrela-

ko presa, nonbait zer-

bait muntatzeko, zeren

bertzenaz sozializatze-

toki gabe geratuko gara.

Zer zinateke zu Amaiurko ez bazina? El Salvadorren ibilia zaitugu garai batez...

Nire bizia Amaiurren egin dut. Emagina naiz, gazteluak ez du deus ikus-tekorik nire lanarekin. Bertzalde, egia da El Salvadorren ibili nintzela, eta, beharbada, Amaiurren ez banintz, GKEen giroan ibiliko nintzateke. El Salvadorren izan nintzen 90eko hamarkadaren hasieran, sei hilabetez. Mundu horrek erakartzen ninduen. Kanpoko herrialderen batean laguntzeak, erran nahi dut. Erizaintza ikasten ari nintzela, azken urteko praktikak egiten ari nintzela Iruñeko ospitalean, mediku bat ezagutu nuen traumatologia solairuan. Pello Goia-txe zen, Mugarik Gabeko Medikuetan

koa. El Salvadorreko gerran zauritua zen —hiltzat ere utzia—, baina atzerritarrak, eta agintariak-eta mugitu ziren eta ebakuatzea lortu zuten. Handik honat ekarri zuten, eta hilabeteen egon zen ingresatuta Iruñeko ospitalean. Erizaintza ikasle izaki ni, bera prest zen beti: “Zuk praktikatu nirekin!”. Hogeitaz urte izanen nituen nik, eta buruan sartu zitzaidan: “Nik ere egin behar dut horrelako zer-bait!”. Pelloren lagun egin nintzen eta, bera medio, Askapenarekin kontaktatu nuen.

Eta El Salvadorren izan zinen sei hilabetez, arestian erran duzunez. Zertan, hala ere?

Komunitate ttiki bateko klinikan egon nintzen, farmazia eta biltegia antolatzen laguntzen, Chalatenangoko departamentuko Guarjila kantoian. Eta han, Jon Cortina zegoen. [Ignazio] Ellakuria eta bertze zazpi pertsonak berriki hilak [1989ko azaroa], ni hemen nintzela. Gerra bukaeran hil zituzten, eta ni ondoko urtean joan nintzen, lehenbiziko hauteskunde garaian, begirale gisa ibili bainintzen. Badut pasarte bat han, arrunt pollita...

Kontatu behar diguzu.

Igande batez, han nago ni lasai, eta gizon bat agertu zen. Uste dut bertze batekin heldu zela, ez zela bakarrik. Galdetu zidan: “Aizu, aita Jon Cortina?”. Eta erran nion: “Meza ematen ari da, baina fite akituko du, eta etorriko da”, zeren ni Jon Cortinaren etxe ondoan nengoen. Solasean hasi ginen. Konturatu nintzen ez

zela hangoa, eta bera ere bai ni ere ez nintzela El Salvadorrekoa. Eta solasetik, biak nafarrak ginela jakin genuen, eta zein herritakoa nintzen galdegin zidan. Nafarroa iparraldekoa erran nion, “Baztangoa”. “Amaiur nork ezagutu behar du!”, pentsatu nuen. “Zein herritakoa?”, galdegin zidan, ordea, eta, nik, orduan bai, Amaiurkoa nintzela. “A, bai? Bada, nik ezagutzen dut bat Amaiurren”. “Zein?”, nik, eta berak: “Felix, Mendialdekoa”. Eta nik: “Bada, ni, bere alaba!”. Koldo Katxo jesuita zen. Geroztik, urtero oparitzen dit Latinoamerikako agenda. Urtero.

Hogeitaz urte zenituen El Salvadorrera joan zinenean. Zein asmotan zinen?

Laguntzera joan nintzen, zerbait ekarpen egin nezakeelako ustean. Hara heldu eta berehala konturatu nintzen nik

haiei ekarpen gutti egin niezaiekeela, baina beraiak niri, aldiz, ikaragarri. Bizitzaren zentzua bera. Beraien filosofia hura-eta, umeak izan eta izan. “Zertarako hainbertze ume?”, nik, eta haiek: “Zeren hiltzen dira!”. Edo emakumeek bata bertearekin izaten zituzten triskan-



EZBERDINTASUNA

“El Salvadorren ikusitako klase sozialen arteko ezberdintasun handi hura ez dut inoiz hemen ikusi. Beharbada, ez naizelako eremu horietan mugitzen. San Salvadorren pobrezia hutsa ikusi zenezakeen —jende hila espalo batean—, eta parean, Centro Española, zentro hartako langileak trajearekin, eta, ondoan, sekulako saltoki handia, hemen oraino horrelakorik ez zenean”.

ERREALITATEAK

“Sari banaketa baino lehen, batarekin eta bertzearekin solasean, Aita Mari elkarteko Nerea Machadorekin solastatu nintzen, eta berriz ere gogoia piztu zitzaidan, gure mundu honetatik atera eta bertze errealitate batzuk ikusteko gogoia. Eta solasak ibili nituen, harat joateko bezala! Kar, kar... Problema da xoratzen naizela, itsasontzi batean ez dezaket. Honderaribitik Hendaia joaten den horretan ere larri ibiltzen naiz”.

KULTURA

“Euskarari, gure hizkuntzari maitasun handia diot, eta errespetu izugarria, eta nire lau umei horixe transmititzen saiatu naiz. ‘Edozein hizkuntza, edozein, errespetu ezazue, ez bakarrik euskara, bertzeak ere bai. Eta gure kultura’, erraten diet. Baztan, bere xoko guziekin, begirada ezberdin batekin behatzen dut”.

Azken hitza

HAZIA EREIN

“Pandemia baliatu izan dut gaztaroko lagunekin berriz elkartzeko eta larunbat arratsaldean itzuliak egiteko: kisu-labeak, elur-zuloak, apez-iturriak... ikusi ditugu, eta istorioak kontatu. Gure ingurua maitatu dugu. Uste dut duela 40 urte Amaiurko gazteluaren inguruan sortu zen mugimendu hark nire barnean zerbait ederra piztu zuela”.





tzak, gizon batengatik! Eta aunitzetan zer gutti baloratzen zuten bere burua. Bertze kultura bat. Emakumeen enkontruak-eta, lan egiteko beraiek bakarrik elkartzen ziren momentuak... itxuraldatu egiten ziren, libre sentitzen ziren. Etxean, bertzerik zen.

Erizain joan zinen, dena den.

Erizainaren ikuspegiari dagokionez, ikusi nuen hemen erabat menperatuak ditugun gaitzek han, oraindik, ikaragarri mugatzen zutela eguneroko bizitza. Ez izatea egunero arrautza bat, edo behar den bezalako proteina bat jateko aukera! Edo txertoak! Baina, txertoa, ez orain koronabirusarena, baizik eta elgorriarena, edo tetanosena... guk aspaldi atzen-
duak ditugunak. Eta zer interes dauden haiek txerto horiek ez izateko. Edo zergatik erakundeek ez duten deus gehiago egiten.

Hor gabilta beti 0,7a dela eta ez dela, geure burua zuritzen...

Familiak Amaiurren ostatua baitzuen, behin etorri zen hara enpresaburu bat

eta jakin zuen ni El Salvadorren nintzela. Erran zion gure amari: "Nahi diot dirua igorri". Eta igorri zidan, erranez: "Hartu zuretako behar duzuna, eta gainerakoa zeuk kudeatu han". Guarjilan baziren hainbat haur desnutrituta. Bixia da, zeren han hasi nintzen baloratzen bularra ematea ere. Ikusi nuen haurrak bularra hartzeari uzten ziotenean hiltzen zirela, bertze elikagairik ez baitzuten. "Amaren bularra, haurraren janari", kantuak dioen bezala. Bularra hartzen zuten artean, bizirik mantentzeko garrantia zuten. Enpresaburu haren diruarekin, hainbertze arrautza erosi genituen, lortu genuen esnea -ederki gostata-, eta egun andana batez haur haiek klinikara etorri ahal izan ziren baso bat esne eta arrautza egosia jatera.

"Egun andana batez" erran duzu. Eta egun andana hori eta gero?

Dirua akitu zen, eta deus ez. Ez zen adabaki bat baizik izan... Baina Askapenatik garbi utzi zidaten ideia bat: "Ez duzu han inoren bizia salbatzeko lanik egin behar. Ez zara ezinbertzekoa, eta

ez duzu ezinbertzekoa izan behar ere. Haiei ekarpenik egitekotan, gero beraiek beren kabuz zuk markatutako bidean ibili ahal izateko era izan behar du zure ekarpenak". Nire kasuan, han ez zen erizainik, osasunaren sustatzaileak baizik.

Zer da "osasunaren sustatzaile" ?

Herriko neskak ziren, doi-doi irakurtzen eta idazten zekitenak -erleenak, gerra garaia bizitakoak-, eta Pello Goiatxe eta gisakoen ondoan erizain lana egiten ikasi behar izan zutenak. Osasunaren sustatzaile horiek, neska horiek, nik inoiz egin ez nituenak egin zituzten: anputazioetan egon ziren, metrailaz betetako operazioetan... Asepsia neurriak-eta erakutsi genizkien, eskuak garbitzen-eta. Hori zela bidea erran zidaten Askapenan, guk haiek gaitzea, trebatzea, beraiek lan hartan segitzeko. Gero, hemengo gobernuaren funtsak iristen hasi ziren, sustatzaile haientzako soldatak eta abar. Zertan gastatzen zuten dirua? Telebista bat erosten, adibidez. Baina ez zuten hilabetean esnea eta arrautza erosteko ere! Eta guk galdegiten genien: "Baina nola gastatzen duzue dirua telebista erosten?". "A!, guk zuek bezala izan nahi dugu!". Berealdiko kontraerrianak sortu zitzaizkidan El Salvadorren. ●



Zer nahi dute euskaldun hauek baina



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Bada marka, ez dakit mundu osoan beste herri bat izango den euskaldunok beste eskaintza eta proposamen politiko jasotzen duenik. Urte batetik bestera, denetatik eskaintzen digute: autarkia, autonomia, federazioa, konfederazioa, independentzia (*light* zein *heavy*), errepublika adjektibo batez edo bestez hornitua, erresuma historiko berpiztua, foru-kontzertu politikoa... zer dakit nik zenbat formula politiko instituzional saldu nahi diguten, gehienetan kanpotik, noizbehinka etxe barrutik. Benetako eskaintzak dira hauek guztiak, ala beherapenen garaiko salgai-hondarrak dira?

Mamirik gabeko bilgarri dotoreak. Hutsa da horien guztien barrua. Kasu bakan batean ere ez baita, orain arte, formula horietako bakoitzaren barruan zer eskaintzen zaigun zehazten. “Guk erabaki”, esan ohi da. Bai, baina zeren inguruan? Zeintzuk dira benetako aukerak?

Horixe da euskaldunon kezka zehatza gaurko egunean, gure naziotasuna ura eskuko hatzen artean bezala ihesi doala ikusten dugun bitartean. Euskaldunok gure nortasuna galtzen badugu, zer gara. Naziotasun inklusiboa eraikitzen lagunduko digun formula politikoa behar dugu, beraz. Eta aipatu guztien artean, zein da horretara egokitzen dena? Horixe da argi entzun nahi duguna, ez besterik. Eta inork ez digu berau argitzen.

Euskaldunok gure nortasuna galtzen badugu, zer gara. Naziotasun inklusiboa eraikitzen lagunduko digun formula politikoa behar dugu, beraz

Euskal Herria nazioa da baina, orain arte bederen, nazio nahi eta ezina. Edo zein naziok bizi behar badu, oinarritzko baldintzak behar ditu ezinbestean. Giza komunitate partekatua osatu. Lurralde propio zehaztu bat, ez itxia baina bai errespetatua. Elkarbizitza modu egokian antolatze moduko polisistema propio egonkortua. Inguruko nazio eta estatuen ezagutza, onarpena eta errespetua. Eta gurean ez gara oraindik oinarri horietara heldu.

Eskaintza eskuzabalak kanpotik egi ten dizkiguten horien artean, batzuek etorkizun oparoaren promesa luzatzen digute, baina baldintza zehatzen pean: “Ez apurtu oraingoa, errespetatu estatua dagoen horretan, eta horren barruan nahi duzuen beste autonomia izango duzue, beti ere estatu-nazioaren agindu nagusiak gordeaz”. Baina agindu nagusi horiek dira, hain zuzen ere, euskal

naziotasuna desegitera daramatenak. Ikusi, adibide moduan, EAerako hezkuntza lege berriaren inguruan piztu den eztabaidan, euskararen gainean sortu den eztabaida. Euskararentzat murgiltze-sistema ez dute aipatu ere nahi oraingo estatu/status zaleek. Ez omen da “politikoki zuzena” bertoko alderdi instituzionalen iritzian. Beraz, legebiltzarrean ez omen du inork euskararen aldeko murgiltzea defendatuko. Hara! Eta bitartean gaztelera/frantsesean majo “murgiltzen” gaituzte ba euskaldunok ipar-hego! Konstituzio espainiarrak dakarren gaztelera jakiteko agindu hori (“*deber de conocer*”), ze murgiltze klase demokratiko da, bada? Euskarari berton ez dagokio pareko egoerarik?

Etxean bertan, independentzia edo euskal errepublika konfederala eskaintzen digutenek argitu beharko ligukete bide horretan zer eta nola jokatu behar dugun euskal nazioa osatu eta sendotzeko, ez dakigun gerta, adibidez, errespetu osoz esanda baina, irlandarrei gertatzen ari zaien modura, estatu independente batua lortzeko bidean, nazioa bera galdu eta maizegi lehengo metropoliaren irudiko gertatzen den nitasun gabeko nortasun klonatua suertatzea.

Euskal Errepublika nahi dugu euskaldunok, ene aburuz. Estatu beregaina, baina euskal nazio antolatu demokratiakoaren oinarrietan finkatua. Horixe nahi dugu. ●

Hipokrisia eta puritanismo artean



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

Kontuz, ordutegi babestuan gaude!”, “Ez dakit hau esan daitekeen...”, “Barkatu, nahi gabe izan da...”. Mahai bueltan ikusten ditut, aurrekoaren berbak zelatatzen, ez ote dion baten bati “ergel”, “ipurdi”, “titi”, “txortan”, “tanpoi” edo halako *basakeriarik* ihes egingo. Monty Pythonen estilora imajinatzen ditut, “Jehova!” barik, “joder!” esan duenari harrikadaka.

“Kontaiguzu zelako berritasunak dauden Urliaren kasuan”. Paso eman diote segidan lankide bati. Emakume eta ume erailak, kolpatuak, zatikatuak, barreiatuak, satsa balira bezala part botatakoak. Azken xehetasun morbosorainoko guztia kontatuko du.

Hitz potolo edo gordinak etika eta estetika kontuengatik galaraztea eztabaidagarria izan daiteke, baina haurreria-zen talde soziala aitzakiatzat erabiltzea, ezin hipokritagoa dela esango luke edo nork. Gutxienez.

Duela zenbait urte ikusi ahal izan nuen zelan AEBetako kate batek pixelatu zituen Ponpeiako mosaikoak eta Picassoren Avignonko damatxoak. Eskandalagarriak, antza. Egoera eta jarrera arruntetan dauden gero eta gorputz atal eta irudi gehiago pixelatzen, ezabatzen eta ezkutatzen dira, pornografia misogino eta basatia mugagabe zabaltzen den bitartean.

Jokabide hipokrita benetan, lehenbizikoan aritzen diren berberak bigarrenetik dirua ateratzen dute eta.

Hipokrisia hauek guztiak puritanismoz jantzita datoz. Esan genezake azalezko puritanismo hori jokabide arbuigarriak estaltzeko erabiltzen dela, nolabaiteko zintzotasun geruza emateko. Baina harago ere badoa.

Andrak santa eta emagaldutartean bereiztea ezinbesteko pieza izan da historikoki sistemarentzat. Emakumeengandik espero diren rol nagusiak dira biak: zaintzailea eta puta. Gizonek, gizon izateko, gutzizatu eta lortu behar dituztenak, beste edozein ondare legez.

Emakumeok jantzi horiek aspalditik daramatzagu estu. 60ko hamarkadan hasitako askapen sexualak zerikusi handia izan zuen horretan. Baina gogora dezagun askapen sexual hori emakumeon plazera eta desira askatzera zeto-rrera, ez gizonen plazer eta desirei bidea erraztera. Bigarrena kaiola berbera baino ez da, arropa gutxiagorekin bada ere. Marra fin horrek bereizten ditu subjektu eta objektua eta ez ekintzak berak.

Puritanismoaren goraldia termino horietan aztertuz gero, esan genezake markoa lehengora itzultzeko ahalegina izan litekeela. Emakumeon gorputza gauza zikina da. Hau *conditio sine*

qua non da emakumeon gorputzen kontsumorako. Ezkutatutakoaren desira handiagoa da berez. Baina, gainera, ze hobe kortse bat baino, kortse horretatik askatu behar garela konbentzitzeko? Hipersexualizazioak ez luke gaur egun horren ondo funtzionatu, berarekin batera puritanismo lerro bat zabaldu izan ez balitz.

Egiten duguna sekula ez da aske erabaki duguna. Testuingurua eta azpiko indarrak hartu behar dira kontuan. Norberaren jokabideak aztertu eta kontraesanak onartu. Egin dezala nork bere gorputzarekin nahi duena, baina ez diezadatela saldu ekintza feministatzat Gabonetako mahats artean.

Entzuten dugun musika ere ez da entzutea erabaki duguna, belarrietatik indarrez sartu digutena baino. Ikusi, bestela, zer gertatu den Espainiak Eurovision-era eraman behar duen kantarekin. Andra-subjektuak bidaltzeko hautua egin zuen jendeak, baita aipatutako puritanismoa salatzen zuen bat ere, baina andra-objektuaren irudikapena bidaltzea erabaki zuten agintzen dutenak.

Negoio handia gara, dolar asko mugitzen dituen. *Funny videos* batzuez eta prostituzioaren erreserba armadaz, hurrengo batean. ●



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Geometria aldakorra

Geometria aldakorra. Politikaren itsasoan arrantza etengabea nabigatzeko modu bat. Gaur halakorekin, bihar horrelakorekin eta etzi honelakorekin. Fideltasun guti eta izaera promiskuoa. Ligatzaile trebeak bezala, begi ona behar du eta maila apaleko printzipioak, etekinaren fabore. Lanbide horretan, EAJ izan dugu maisu. Bere opilari su egiteko baldintzan, edonoiz, edonola, edonorekin beti konpontxo egiteko prest. Tasun ala keria? Nork, noiz, nola.

Jelkideen sigi-sagak hain ongi ezaguturik, zertaz espanta orain Sanchezen PSOREkin? Ez zuen lan erreforma aterako bere azken urteetako ohiko bidai-deekin; ez, bederen, berak eta Bruselak nahi zuten horretan. Prestidigitadoreak lagun berriak aurkitu ditu bere txisteran. Ciudadanosekin lortutako akordioak ez du soka luzerik ekarri. Hartaraino jotzen da hilotzat Arrimadasen alderdia. UPN-rekin egindakoak lurrikara eragin du.

Zirko itxura izan du erreformaren onespén txiripazkoak. Tarteko, alderdi nabarristak Madrilen dituen bi diputatuen *traizioa*, eta horrek UPNren baitan piztu duen krisia. Iji eta aja egin dugu Sayasen eta Adaneroren kontura. Irri eta orro, Javier Esparzaren bizkar. Algarek goitiago jo dute sozialistek UPN zein merke erosi duten zabaltzean. Madrilgo Gorteetako bozketak Sanchezendako zuen garrantziaren aldean, ahuntzaren gauerdiko eztularen pareko dirudi adostutako prezioak.

Kasu, ordea. Edukietatik harata, Nafarroan bati baino gehiagori izerdi hotza eragin dio UPNko burua Madrilgo PSOREkin mahai berean jarri dela jakite hutsak.

Nabarristen eta sozialisten arteko akordio etengabeak moldatu du Foru Komunitatearen azken 40 urteko historia politikoa. Euskaltzaletasuna nafar erakundeetatik kanpo uztea zen elkar ulertze horren abiaburua eta helmuga. Ildo baztertzaile hori bi gobernuk baidarik ez dute eten: Otano sozialistarenak, 1995-96an, CDNrekin eta EArekin, IU babesle zela, eta Maria Chiviterenak, 2019az geroztik, Geroa Bairekin eta Podemosekin, Bilduk sostengatuta. Azken hori baino lehenago, 2015eko hauteskundeetako emaitzek PSN indar erabakigarririk gabe uztean bilakatu zen Uxue Barkos lehendakari.

Ezin erran sozialisten agintaldi hau bidelagun abertzaleak pozez zorutzen uzten ari denik, hizkuntza kontuetan bereziki. Dударik ez da, ordea: hagitzez okerragoa litzateke UPNren eta PSNren arteko akordioen itzulera, baita hizkuntza kontuetan ere. Agian eskertu beharko diegu Esparzari eta enparauei. Posibilitate hori ez dela inoiz desagertu oroitarazi digute egun hauetan. Pilak jartzeko balio badigu, gaitz erdi. Ea geometria politikoaren bertze lema-ukaldi batek ez gaituen berriz ere linbora bidaltzen. ●

Salah



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Irakurleak badaki 2015eko Parisko atentatu izugarrien auzia hurbiletik segitzen dudala, eskura dauzkadan prentsa baliabideei esker. 130 herritarren herioa eragin zuten komandoetatik bizirik ateratako kide bakarra Salah Abdeslam izan zen eta bere bizkar datza justizia egin beharraren kargarik handiena. Bost urte eman ditu isilik presondegiko isolamenduan, eta iragan egunean, mintzatzen hasi da. Bere burua zurrizteko? Bere ekina esplikatzen saiatzeko? ISIS oraindik ere justifikatzeko?

Agerpenaren hasieran errepikatu du ez ziola inori minik egin, ez zuela

nehor hil... espero balu bezala libre eta garbi ateratzea tribunal horren aitzine-tik. Adierazpenetako punturik interesgarrienak gutako askoren kasko zokoan dabilen gaudeari erantzuna ekarri zion: gerrian zeukan zartagailu zintari ez eragitea erabaki zuen azken momentuan... erabaki kontzientea, nahiz eta ez dakien *a posteriori* ongi egin duen ala ez. Erantsi zuen mutu geratu zela anaia jihadisten aldetikako mendeakuen beldurrez eta neurri batean koldar hutsaren antzera ibili zelako sentimenduak lehertzen duelako.

Hor dugu arrapostua. Ez du gertatua barkatzen. Bistan dena. ●

Kaleak betetzeko antolatu gaitezen



IRATI TOBAR EGUZKITZA
FEMINISTA ETA
SINDIKALISTA

Hilabeteren buruan feministok emakume* langileon egunean kaleak hartzera aterako gara. Urteroko zita dugu, urtez urte gogoz antolatu eta prestatu duguna. Pasa den astean atzera begirada arin bat egin genuen Portugaleteko asanbladan, 2018ko eta 2019ko greba feministak oroituz.

Grebaz greba sistema jo-puntuari jarri eta, besteak beste, sexuan oinarrituriko lan banaketak emakumeengan* sortzen dituen zapalkuntzak salatu genituen. Are gehiago, emakumeok dohainik eta maitasunaren izenean egiten ditugun zaintza-lanak egiteari uzteko deia egin genuen, lan horiek bizitza sostengatzen dutenak izanik, planto egin eta mundua kolokan jarriko genuelakoan.

Ez ginen bakarrik izan, ez eta lehenak ere. Argentinako kideek jarri zuten lehen harria, herrialdea egun batez guztiz geldituz. Euskal Herrian lekukoa hartu genuen, eta beste lurralde batzuekin batera kaleak hartu genituen. Arrakasta berehalakoa izan zen. 2019an sistema heteropatriarkal kapitalistaren aurrean bizitzak erdigunean jarri behar genituela aldarrikatu genuen. Arrakasta errepikatu egin zen. Euskal Herriko mu-

2020ko lelo eta asmoari
heltzeko beharra
dugu, mugimendu
feministan antolatzearen
ezinbestekotasuna
plazaratu behar dugu

gimendu feministak auto-antolakuntza lan izugarria egin zuen, greba feministak historikoak izan ziren.

2020ko martxoaren 8a igandea izan zen. Grebarik ez genuen deitu, baina bai ordea kaleak hartu. Antolatzearen beharra eta indarra izan ziren ardatza: "Antolatu indarrak, batu borroka feministara. Aurrean izango gaituzue!" lelopean. Hortik hilabete gutxitara COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz etxean sartu gintuzten, konfinatuak izan ginen. Birusaren kutsatzearen errua mobilizazio horietan parte hartu genuen subjektu feministena izan zela sinestarazi

nahi izan ziguten. Esanak esan, herritar guztiak etxean geunden, kalera erosketak egitera zein funtsezkoak diren enpleguetara joateko ateratzen ginen soilik. Mobilizazioak edo edozein protesta egitea denbora eta esfortzu asko kostatu zaigu. Oraindik orain kostatzen ari zaigu.

2020ko lelo eta asmoari heltzeko beharra dugu, mugimendu feministan antolatzearen ezinbestekotasuna plazaratu behar dugu. Mugimendu sendoa izan dezagun; antolatu, eragile anitz eta askotarikoen artean subjektu feministak, borrokaren subjektua, indartu, batu eta kohesionatu behar dugu. Hasitako bideari jarraipena ematea dagokigu. Erronka potolo bat jarri digu pandemiak parez-pare, geure begien aurrean: zaintza merkantilizatzeari uzteko eta emakumeok* zaintza-lanak maitasunaren izenean dohainik egiteari uzteko, Zaintza Sistema Publiko Komunitario baten borroka eta eraikuntza. Erronka horri aurre egiteko, beharbada, borroka-molde ezberdinak baliatu beharko ditugu, greba barne. Beraz, antolatu gaitezen eta kaleak bete, 2022ko martxoaren 8a ate joka dugu. ●

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM



uhinak euskaraz eta libreki astintzen

#bizitzajokoan
#TierraVidasDerechos
#Congresobizitzajokoankongresua



Antolatzailea:



Parte hartzen dute:

- » **CEAR EUSKADI** – Comisión Española de Ayuda al Refugiado
- » **CEFREC** – Fundación para el Desarrollo de la Comunicación Intercultural
- » **MGI** – Mugarik Gabeko Ingeniaritza
- » **IMD** – Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de DDHH
- » Asociación Maya **UK'UX B'E**
- » **Deusto Unibertsitateko** Giza Eskubideen Institutua
- » **LEB** – Latinoamerikako Eskubideen Behatokia

Babesten dute:

- » Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- » Bizkaia Foru Aldundia
- » Euskal Herriko Unibertsitatea – Bilboko Hezkuntza Fakultatea

AMA LURRA, MILITARIZATUA, SETIATUA, POZOITUA, (...), EKINTZARA PASATZEA ESKATZEN DIGU.

BERTA CÁCERES

Ekintzara pasatzeagatik hain zuzen ere lapurtu zioten bizitza Berta Cáceres-i. Natura defendatzen duten beste askori bezala.

Izan ere, Krisi Klimatikoaz eta ekintzara pasatu beharraz iadanik hurrenbeste hitz egiten denean, oraindik gaur egun Lurra eta bertan bizi garen izaki ororen eskubideak defendatzeak, bizitza propioa arriskuan jartzea dakar berekin.

Alegia, bizitza jokoan Bizitza bera defendatzeagatik.

Ekosistema asko arriskuan daude, klima larrialdiak, deforestazioak, meatzaritzak, habitaten suntsipenak, neurri gabeko industrializazioak edota ingurugiroaren degradazioak eraginda.

Larrialdi klimatikoaren aurren aritzeko denbora amaitzen ari da eta pertsonen BIZITZA, LURRA, eta ESKUBIDEAK jokoan daude.

Guzti horren inguruan hitz egin nahi dugu martxoak 1, 2 eta 3 Bilbon ospatuko dugun Bizitza Jokoan Kongresuan. Eta ikuspegi desberdinetatik abiatu nahi dugu: Giza eta Naturaren eskubideak defendatzen dituzten pertsona eta kolektiboena, politikariena, zientzialariena, ekintzaile soziala eta kazetari zein komunikatzaileena. Eta noski, mahai gainean jarri ere borroka asko martxan daudela eta batu gaitzkeela.

Eta zu gurekin egotea nahi dugu.

EGITARAUA

MARTXOAK 1, ASTEARTEA

18:00 KONGRESUAREN HASIERA ETA AURKEZPENA

18:20 BIZITZA JOKOAN

Giza eta Naturaren Eskubideak defendatzen dituztenei babes-
tea.

MARTXOAK 2, ASTEAZKENA

9:30 EUSKADIKO TALDE POLITIKOAK KRISI KLIMATIKOA ETA ESKUBIDE URRATZEEN AURREAN

Mahai-ingurua euskal alderdi politiko nagusien ordezkariekin.

11:30 – 12:00 atsedena

12:00 BORROKA KOLEKTIBOAK LURRALDEETATIK. Kasuak:

- » Honduras: indarkeria eta jazarpena eskubideak defendatzen dituzten emakumeen gain
- » Estatu mailako parke eoliko eta energia berriztagarrien ezarpen eredu...horren garbia eta jasagarria ahal da?
- » Lurra, zulatuta eta txikituta: ikatz eta litio meatzaritza El Cerrejón-en (Kolonbia) eta Cáceres-en (Extremadura)

MARTXOAK 3, OSTEGUNA

9:30 KOMUNIKAZIO KRITIKOA KRISIEN AURREAN

Komunikazioak Giza eta Naturaren Eskubideen urraketaren aurrean jokatzeko duen paperaz mahai-ingurua.

11:30 – 12:00 atsedena

12:00 EREU BATEN PORROTETIK, ALTERNATIBEN ERAIKUNTZARA

Proposamenak Zientziaren eta Naturaren Eskubideen abiatuta.

13:30 ONDORIOAK ETA ITXIERA



IZENA EMATEKO, PROGRAMA OSORIK ETA GONBIDATUAK:

www.mugarikgabe.org/eu/bizitza-jokoan-kongresua/

KONGRESUA SAREAN ZUZENEAN JARRAITU DEZAKEZU:

MugarikGabeONGD

JARRAI IEZAGUZU: www.mugarikgabe.org | mugarikgabe



Donetskeko Herri Errepublikaren
soldadu bat Yasynuvata
distrituko gerra fronteko lubaki
batean, urtarilaren 22an.
Argazkia: A. Alexandrov AP



Oldarraldi militar fabrikatuak eta hauen arriskuak Ukrainan

2021eko urriaren 30ean *The Washington Post* egunkariak argitaratutako artikulu batek ireki zuen bidea. Testuan iradoki zuten Errusia Ukrainaren inbasioa prestatzen ari zela. Ordutik zurrumurrua etengabe elikatu eta garatu dute AEBetako Gobernutik, eskala handiko inbasioa berehala gertatuko zela esan arte. Iturria? AEBetako eta Erresuma Batuko inteligentzia zerbitzuak. Frogak? Bat ere ez. Hipotesiak ba al du logikarik, Errusiak nazioarteko politikan azaldu duen portaerari erreparatuz gero? Hori ere ez. Orduan, zer ari da gertatzen?

Aurrekariak garrantzitsuak dira: Errusiako armadak bere muge-tatik kanpo egin dituen esku-hartze militar guztiak erreaktiboak izan dira, ez dago bat bera ere proaktiboa. Halere, hori ez da arrazoi nagusia ulertzeko zergatik Errusiak ez duen eskala handiko inbasio bat burutuko Ukrainan, nahiz eta Mendebaldeko hedabide nagusiek etengabe kontrakoa esan. Nahi izan balu, garai aproposagoak izan ditu hori egiteko indar harremanei dagokienean, dimentsio militarren eta Ukrainako jendartearen artean izan leza-keen babesari erreparatuz, baina ez du nahi izan. Izan ere, nazioarteko politikan Kremlina zuhurra eta kontserbadorea da, gogoan ditu Bigarren Mundu Gerra-ko hondamendia eta sobietar abentura Afganistanen. Ondo ezagutzen ditu bere ahulguneak. Horrelako abentura militar batek egun Errusiako Estatuaren etorki-zuna arriskuan jarriko luke.

Etxe Zuriaren ametsetako bat da Errusiako Federazioa beste Afganistan batean lokaztea, horregatik, Joe Biden boterera iritsi bezain laster Errusiaren

kontra erasokor agertu da. 2021eko martxotik ekaina bitartean AEB, NATO, Ukraina eta beste aliatu batzuek historiako ariketa militar handienetakoak jarri zituzten martxan, *Defender-Europe 2*, besteak beste, Europa Ekialdean, Baltikoan eta Itsaso Beltzean. Aste batzuk geroago errusiarren erantzuna etorri zen, ariketa militarrek antolatuz Ukrainarekin muga egiten duten errusiar lurraldeetan. AEBek gerraontziren bat edo beste bidali zuen Itsaso Beltzera, baina, Errusiak ariketak bukatu eta armada kuarteletara erretiratu zuen.

Errusiak ondo ezagutzen ditu bere ahulguneak. Horrelako abentura militar batek estatuaren etorkizuna arriskuan jarriko luke


Ekainean Erresuma Batuko gerraontzi bat errusiarren kontrolpeko Itsaso Beltzeko uretan sartu zen, geroago Herbehereetako gerraontzi batek saiakera bera egin zuen eta azkenean, AEBek eta Ukrainak elkarrekin ariketa militarrek egin zituzten Itsaso Beltzean. Behin uda pasata, inbasioaren mamua berriro paseatzera atera zuten AEBetako eta Erresuma Batuko gober-nuek. Beraien inteligentzia zerbitzuek era eskuzabalean elikatu dituzte heda-bideak, erdi-egiekin, konspirazioekin eta berri faltsuekin.

Guztia Errusiak Ukrainako mugetan ehun mila militar inguru metatu omen dituelako, hau da, Ukrainak Donbasse-ko herri errepubliken inguruko lurraldeetan pilatu dituenen erdia gutxi gorabehera. 15 milioi biztanle zituen eta Mendebaldetik deskonektatuta zegoen Txekoslovakia inbaditzeko milioi erdi militar behar izan zituen Varsoviako Itunak, eta orain, antza, Errusiak ehun milarekin nahikoa du inbaditzeko 40 milioi biztanle dituen eta NATOrekin lurrez konektatuta dagoen Ukraina.



AEBetako soldaduak Alemaniako Vilseck-eko aireportu militarrean, otsailaren 9an. Argazkia: AP

NATOren hedapena Europar



FAKE GUDA MEDIATIKOA

Edozein potentziak gezurrak fabrika ditzake, baina arrakastatsuak izan daitezkeen hedatzeko bitartekoak behar ditu. Washingtonek eta Londresek nazioarteko hedabideen gainean kontrol handia dute eta egun bi herrialde horiek bizi duten gainbehera hegemonikoari aurre egiteko, maiz erortzen dira manipulazio eta faltsifikazioetan.

Nazioarteko gatazka bat mediatikoki sortu edota elikatzeak beti izan du Ipar Amerikako konplexu militar-industrialaren babesa. Dwight D. Eisenhower AEBetako presidentek bere agurreko hitzaldian ohartarazi zuen bezala, konplexu militar-industrialaren interesek etengabe mehatxatzen dute politika estatubatuarra, bere interesak nazioen gainetik jartzen dituelako. Parte batean,

horrek esplikatzeko du zergatik AEBek NATOren hedapena bultzatzen duten. Kide berri bat sartu orduko konplexu militar-industrialak bezero bat gehiago dauka, bere armak erostera behartuta dagoena. Logika horren arabera ez da kontraesankorra NATOk etsaitzat duen Errusia inguratzea eta mehatxatzea, arriskutsua izan arren. Izan ere, potentzien artean ez badago estatu neutralik, gatazka arintze-eremu gisa, tentsioak noizbehinka gora egingo du armamentu erosle konpulsiboak sortuz. Hori da egun gertatzen ari dena.

ONDO DATORKIEN PANORAMA

Halere, konplexu militar-industrialak duen pisuaz gain, badira barne-motibo ugari azaltzen dutenak zergatik orain Washingtonek eta Londresek tenkatu

Nazioarteko gatazka bat mediatikoki sortu edota elikatzeak beti izan du Ipar Amerikako konplexu militar-industrialaren babesa

duten harremana Errusiarekin. Erresuma Batuak oraindik ez du ondo digeritu Brexita eta Boris Johnson lehen ministroaren irudia narriatuta dago, batez ere, berak antolatuta eta parte hartu



AEBetako eta Ukrainako soldaduak 'Fearless Guardian' ariketa militar bateratuen irakiera ekitaldian, Ukrainako Yavoriv-eko entrenamenduzelaian 2015ean. Argazkia: AFP

duen zenbait festetan ez dituelako pandemiari aurre egiteko arauak errespetatu. Johnsonen eskandalu bakoitzaren ostean, ia automatikoki jakinarazten dute aztergai dugun Ukrainiako krisian tentsioa igoarazten duen britainiarren beste ekarpen bat.

AEBetako panorama ez da hobeia. Herrialdearen gizartea eta politika sakonki ari dira zatitzen eta polarizatzen, horregatik, eztabaida politikoaren joera zentrifugoa apaltzeko kanpo etsai errusiarrengana desbideratu dute arreta. Bestalde, ekonomian inflazioa harrotuta dago eta zorra etengabe ari da handitzen; horrelako egoeren aurrean gerra hotsek indartu egiten dute dolarra, inflazioaren aurka borrokatzeko abantailak ekarriz eta hazkunde ekonomikorako aukera berriak sortuz. Era berean, alderdi demokratik erabili nahiko ditu giro gerrazalea eta berarekin batera aktibatzen den maccarthismoa, Biden eta bere administrazioak sufritu duten babes higadurari buelta emateko aurtengo Kongresurako hauteskundeetan azaroan izango dira.

Errusiaren inbasioaren mehatxua, nahiz eta ez sinesgarria izan, arriskutsua da, "autobetetzen den profeziaren" arabera

Barne faktoreez gain, gertatzen ari dena ulertzeko komeni da nazioarteko politikaren elementu garrantzitsu batzuk kontuan hartzea. Washingtonen zenbait sektorek pentsatzen dute AEBek bizi duten hegemonia gainbeherari galga jartzeko modu zuzenena litzatekeela beren etsaiak inplikaturiko dituen gerra bat egotea. AEBek nagusitasun zabala dute arlo militarrean eta ekintza militarrek justifikatzen dituzten hedabideetan. Horregatik, gerrazaleek arlo ekonomikoan dituzten gabeziak betetzeko edota konpontzeko erabili nahi

dituzte. Gainera, edozein gerrak nekez ziprztinduko ditu AEBak, geopolitikaren ikuspegitik uharte baten gisa funtzionatzen baitute. Hori defentsarako abantaila den moduan, ekonomiarako arazo da, batez ere, Eurasia, Afrika eta Latinoamerika merkatu gisa konektatzeko Txinak martxan jarri duen Zetaren Bide berria proiektuagatik. Horregatik, AEB eta Erresuma Batua espazio eurasiarra desegonkortu dezakeen edozein aukera eta ekintza bultzatzeko prest daude, Errusia eta Txina molestatzeko.

AUTOBETETZEN DEN PROFEZIA

Washingtonen eta Londresekin ondo dakite eurasiar merkatu integrazioa gartzten bada, ardatz anglosaxoia osatzen duten uharte geopolitikoak munduko ekonomiaren periferia bilaka daitezkeela. Horregatik daude hain tematuta Gerra Hotzaren bigarren bertsioa sortzen Errusiaren eta Txinaren aurka; EB gatibu hartzeko, integrazio eurasiarrean parte hartu ez dezan. Helburu hori izanda, ardatz anglosaxoia etsaiak sortu eta antagonizatu behar ditu NATO kohesionatzeko eta EB bere interesetara ainguratzeko.

Ukrainako erreserbistak Kyiv inguruko ariketa militar batean, abenduaren 18an. Argazkia: EPA



Horretarako erabili duen Errusiaren inbasioaren mehatxua, nahiz eta ez sinegarria izan, arriskutsua da. Robert K. Mertonek sistematizatu zuen “auto-betetzen den profeziaren” arabera, hasiera batean egoera baten definizio “faltsu” bat egiten badugu, horrek jokabide berria sortzen du hasierako definizio faltsua “egiazko” bihurtuz. Horrela, inbasio bat hasteko borondaterik ez duen Errusiak Ukraina inbadituko duela esaten badugu, bere balizko biktimak eta horien aliatuak has daitezke armatzen eta tropak Errusiako ateetan pilatzen, Errusia geroz eta mehatxatuago sentitu arte eta gerrarako prestatzen hasi arte.

Zoritxarrez hori da gertatzen ari dena. Normalean ez bezala, Errusiak eskalada diplomatiko-militarrean parte hartu du, ordea. Hori da oraingoan berritasuna. Etxe Zuriak sorturiko kontaktuzuna Kremlinak aprobeztatu du etxean dituen barne arazoak estaltzeko, baina baita NATOren zabalkundea geratzeko ere. Behin mamu izendatu zaituztela, mamu izateak dakartzan abantailak baliatu eta zure eskariak aintzat hartzeko aldarrikatuko duzu, ze bestela... tropak

leku batetik bestera mugituko ditut, nire mugak misilez josiko ditut eta sorpresazko neurriren bat har dezakedala iragarriko dut.

2014TIK GUDA ABIAN DA UKRAINAN

Kontua da antzezlan diplomatiko-militar guztia gertatzen ari dela nazioarteko gatazka erreal bat tartean dagoela. Ekialdeko Ukrainan intentsitate txiki-ko gerra dago 2014tik, 15.000 hildako eragin dituen. Horregatik, eskaladaren jokoa arriskutsua da egur gehiago botatzen diolako pizturik dagoen gatazka bati, nahiz eta 2019an askok pentsatu zuen Ukrainako presidente berriak, Volodimir Zelenskik, guda amaitzeko pausu sendoak emango zituela.

Hasieran Zelenskik Minskeko bake akordioak betetzeko borondatea erakutsi zuen. Alde biko su-etena eta eremu desmilitarizatu baten sorrera adostu zituzten, besteak beste. Baina Ukrainan politika bakezaleak bultzatzeko edozein saiakera bertan behera gelditzen da mugimendu ultraeskuindarrek, estatu-ko hainbat aparatuk eta AEBek egiten

2008an NATOk iragarri zuen Georgia eta Ukraina Ipar Atlantikoko aliantza militarrean sartuko zituela

duten presioagatik. Presidenteak bake bidetik jarraitzeak zekarkion higadura politikoaz ohartuta, azkenean albo batera utzi zuen helburu hori.

Zelenskik ekonomian ere ez zuen zortzerik izan eta ondorioz, inkestek jaso zuten bera begi onez jotzen zuten herritarren babesaren jaitziera handi bat. Irtenbide gisa, presidenteak muturreko nazionalismoa besarkatu eta neurri antidemokratiko ugari ezarri zituen, besteak beste, zenbait telebista eta hedabide itxiz, oposizio-ko buruzagi bat atxilotuz eta Petro Poroxenko presidentea ohia judizialki jazarritz.



Otsailaren 16an Kiev-en AEBetako enbaxadaren aurrean dozenaka pertsona elkartu ziren gerra inperialistaren aurka. Argazkia: Euskal Herria-Donbass Elkartasun Komitearen bitartez.

Ukrainako presidentek presioari aurre egiteko erabili duen beste neurri bat izan da Donbasseko intentsitate txikiko gerra hauspotzea, tropa eta armamentu gehiago hara mugituz eta eraso "txikiak" ugalduz. 1995ean Ekaitza Operazioaren bitartez, Kroaziak Krajina berreskuratu zuen bezala, Ukrainak tentazioa izan dezake antzeko operazio bat burutzeko Donbass eskualdea osotasunean bere menpe hartzeko. Ideia horrek bultzada handia jaso zuen 2020an Azerbaijanek Nagorno Karabakhi eraso egin eta lurraldearen parte handi bat berreskuratu zuenean.

NAGORNO KARABAKHEKO JOKALDIA ERREPIKATZEKO TENTAZIOAK?

Errusiak badaki Ukrainako armada ez dela 2014 eta 2015ean bezain ahula. Garai hartan Donbasseko miliziak gerra irabazten zihoazen Kremlinako inteligentzia militarren laguntzarekin eta errusiar militar kamuflatuek bitan burotu zituzten esku-hartze azkarrekin.

Arazoa da balizko edozein akordio ez badute AEBek babesten, praktikan ez duela ezertarako balioko, Mendebaldean agintzen duena Washington baita

Ordutik Ukrainako armadak asko hobetu du gaitasun militarra. Hori dela eta, Kievek erabakiko balu Donetskeko eta Lughanskeko herri errepubliken aurka eraso handi bat egitea, litekeena da emaitza Nagorno Karabakheko gerran gertatu zenaren antzekoa izatea, Ukrainaren alde.

Mendebaldeak eta Ukrainak, isilean bada ere, onartu egiten dute Errusiak ez duela Donbass eskualdea okupatzen, horregatik dago gerra; aitzitik, Krimean tropa errusiarrak daudenez, Ukrainak ez dio penintsulari eraso egiten. Baina, beste alde batetik, Ukrainako mugaren inguruan Moskuk egiten dituen tropa mugimenduekin, praktikan onartzen du errepublika autoaldarrikatuak ez direla gai beren independentzia bermatzeko eta balizko eraso baten aurrean Errusiako armadak eman liezaiekeen laguntzaren menpe daudela erabat. Beraz, Errusiako tropak metatzeak disuasioa du helburu, Kiev eror ez dadin Nagorno Karabakheko tentazioan, edo bestela esanda, gogorazteko 2008an Georgian gertatu zenaren antzeko agertoki bat errepika daitekeela. Orduan Georgiak Hego Osetiaren aurkako eskala handiko eraso bat abiatu zuen, baina Errusiak azkar erantzun eta irabazi zuen gerra.

Gerra pizteko dagoen probabilitatea txikia da, baina demagun Kievek operazio militar zabala abiarazten duela.



Joe Biden eta Vladimir Putin, bideokonferentzia bidezko elkarrizketa batean abenduaren hasieran. Argazkia: Efe

Errusiak militarki esku hartuko al luke Donbasseko herri errepubliken alde? Kontraerasoa arrakastatsua bada, noraino iritsiko lirateke errusiarrak? Nagusiki bi hipotesi daude. Lehenengoan, Donbasseko herri errepublikek egun okupatzen dituzten lurraldeen kontrola berrezartzeko operazioa burutuko lukete Errusiak eta bere aliatuek; bigarrenean aldiz, Donbasseko eskualde osoaren kontrola hartzeko kontraerasoa litzateke.

ERRUSIAREN BELDURRA: NATO

Edonola ere, gerra ez da Errusiak nahi duena, Moskuk Donbasseko gatazka amaitzea nahi du Minsken adostutakoaren ildotik. Horrek funtsean esan nahi du Donbasseko eskualdeari autonomia ematea eta Ukrainan berrintegratzea. Errusiak horrela uste du 2014tik Ukrainan galdu duen eragin politiko, ekonomiko eta kulturala berberaikitzen hasteko aukera izango lukeela, nahiz eta jakin inoiz ez litzatekeela bueltatuko izatera garai bateko errepublika-ahizpa. Halere, Kremlinentzat agian hori baino garrantzitsuagoa da Donbass autonomoak joka lezakeen papera Ukrainaren balizko NATOk integratzeko blokeatzeko.

Gogora dezagun 2008an NATOk iragarri zuela Georgia eta Ukraina Ipar Atlantikoko aliantza militarrean sartuko

zituela. Esan gabe doa Ukrainako herritarren iritzia ez zela kontuan hartu; garai hartako inkestek ziotenez, herritarren gehiengoa zatituta zegoen Errusiarekin aliantza militar batean sartzearen aldekoen eta herrialdeak neutral mantendu behar zuela uste zutenen artean; NATOn sartzea defendatzen zutenak ez ziren %20ra iristen.

Errusiak ez ditu Georgia eta Ukraina NATOn integratuta ikusi nahi. Beldur da eta ez da harritzekoa kontutan hartzen badugu Aliantza Atlantikoak Errusia etsai bezala izendatuta daukala, ez zuela bete ekialdera ez hedatzeko eman zuen hitza eta errusiarren atetatik gertu misilak jartzen pasa dituela azkeneko urteak. Horrez gain, armak ez ugaltzeko zenbait hitzarmenetatik erretiratu dira AEBak aldebakartasunez eta NATOk kide gehienek Errusiaren kontrako jazarpen politiko eta ekonomikoan parte hartzen dute, adibidez, ia guztiek zigorrak jarri zizkioten. Halere, Errusiak badaki bere jazarpenaren iturburu nagusia Washington eta Londres direla. Horiek agintzen dute eta Europar Batasuneko bazkideak beraien esanetara jartzen dira, horregatik, Moskuren negoziaketa eskaera zuzenean sheriffari zuzendu diote: AEBei.

Elkarrizketetan ez daude ez Ukraina, ezta Donbasseko herri errepublikak ere. Bien soberania maila oso txikia da. Dei-

garriagoa da Europar Batasuna negoziazioetan ez egotea. Normandiako taldeak –Ukraina, Frantzia, Alemania eta Errusia– Minskeko akordioak betearazteko duen ezintasunaren adierazlea da. Akordioak ezin izan dira bete Ukrainak ez duelako akordioa betetzeko indarririk izan eskuin muturraren eta AEBen presioen aurrean.

Hau ez da Washingtonek Ukrainan europarren ahalegin diplomatikoak zapaltzen dituen lehen aldia. 2014ko otsailaren 21ean, Ukrainako oposizioak eta gobernuak, Europar Batasunaren bitartekaritzarekin, akordio bat lortu zuten Ukrainako krisi politikoa amaitzeko, baina, akordioak 24 ordu bete baino lehen, oposizioak estatu kolpea jo zuen AEBen laguntzarekin. Barack Obama-ren hitzetan, haiek “bitartekaritza” lana egin zuten botere aldaketarako.

Halere, Errusia ez da Normandiako taldetik erretiratu eta prest agertu da Europako buruzagiekin hitz egiteko. Arazoa da balizko edozein akordio ez badute AEBek babesten, praktikan ez duela ezertarako balioko, Mendebaldean benetan agintzen duena Washington baita. Europa kontinentalaren gehiengoa AEBen jarrera oldarkorretatik aldendu bada ere, horrek ez du esan nahi Europar Batasuna ahaldundu denik eta bat-batean bere soberania eta interesak lehenetsiko dituenik. ●

“ ”

Piztia arrarotzat hartzen gintuzten, baina orain emakumeon pilotarekin gozatu egiten du jendeak

Maite Ruiz de Larramendi

Goiza eguzkitsu dago Urbanan, eta familiaren bordatik bi aulki atera ditu Maite Ruiz de Larramendik (Beasain, 1973). Eszenatoki idilikoa da elkarriketa baterako. Antza, haren bi txakurrek ere parte hartu nahi dute solasaldian. Jostari dabilta, arreta eske. Jabea ere inguru horretan asko jolas egindakoa da, bertan hazi baitzen, ardiak zainduz eta gazta landuz, guraso eta anai-arrebekin batera. Eguzkia sartu arte aritzen zen pilotan, hotel zaharraren frontoian (argazkietan), eta ekinean jarraitzen du oraindik ere, 48 urterekin. Sasoiari eta grinari eusten die munduko txapeldun ohiak; ziurrenik, Urbanako gaztak eta egurats garbiak badute zerikusirik horretan.

Urte askoan bizi izan zara paraje eder hauetan. Pribilegio handia izan duzu.

Toki honek dena esan nahi du niretzat. Nire bizitzako udara gehienak hemen pasa ditut, eta oso zorionsu izan naiz. Gehien betetzen nauen lekua da, eta indar handia ematen dit. Nire sustraiak hemen daude, eta oso garrantzitsua da niretzat erroekiko loturari eustea. Behar nuen guztia neukan hemen: familia, natura, eta frontoi bat. Paradisua zen. Urbanako bizimoduak aske sentiarazten ninduen, eta hemen pasatako urteak ez nituzke ezerengatik ere aldatuko. Familiak hemen jarraitzen du, eta ahal dudan guztietan itzultzen naiz.

Etxean jaso duzu naturarekiko eta animaliekiko zaletasuna. Eta pilotaz ere, beste horrenbeste esan daiteke, ezta?

Aitak eta aitonak zaletasun handia zuten, eta anai-arreba guztiok kutsatu gintuzten. Anaia gazteena urte askoan aritu da frontisean, eta anaia zaharrenak ere luzaroan jokatu zuen afizionatutan. Txikita-

tik izan dugu abeltzaintza eta pilotarekiko pasioa. Ia oinez hasterako hasi nintzen ni pilotari ematen. Etxeko edozein txokotan aritzen nintzen. Zenbat partida jokatu ote ditudan lastategian... Gurasoek ohitu egin behar izan zuten. Aitonak frontoira eramaten ninduen, eta berehala ikusi nuen hura zela nire tokia.

Zenbat urterekin hasi zinen txapelketak jokatzeko?

Zortzi urterekin egin zidaten lizentzia. Eulaten eskola txiki bat zegoen, baina Lizarrara ere bidaltzen gintuzten. Mutilekin lehiatzen nintzen, bikoteka. Hasieran, ezagutzen ez nindutenek ez zuten nirekin jokatu nahi izaten. Baina iritiz aldatzen zuten joa nuela ikusi orduko. Hamalau urte bete arte ibili nintzen horrela, eta bitxikeria bezala, partida bat irabazi nion Ruben Belokiri. Nafarroako Txapelketako finalaurrekoetan izan zen, Tafallan. Aitortu zidan sake ona nuela, eta pilotari oso ondo ematen niola. Lagunak gara oraindik ere.

Gero, lau urteko etena izan zenuen. Behartu egin zintuzten pilota uztera. Nola gertatu zen?

Ni oso gustura nenbilen, ondo moldatzen nintzen, eta ez nuen eskuko minik batere. Jendea, ordea, aitari presio egiten hasi zen: emakumea nintzela, eskuak kaltetu behar nituela, beste zerbaitegin nezakeela... Hainbeste tematu ziren, ezen aitak amore eman zuen, eta esan zidan ezingo nuela txapelketak jokatzeko jarraitu. Nik ezin nuen zergatia ulertu. Mutilek askatasun osoa zuten pilotan segitzeko, edo nahi zutenean beste kirol bat egiten hasteko. Niri, ordea, ez zidaten aukerarik eman. Hemezortzi urte-

rekin etxera deika etorri zitzaizkidan, eta amak ez zuen bitan pentsatu. Niri galdetu ere egin gabe eman zuen baiezkua. Ongi zekien pilotak zoriontsu egiten ninduela.

Eskuz ez, palarekin hasi zinen jokatzeko. Eta oztopoak oztopo, tinko eutsi zenion hortik aurrera.

Proba bat egin nuen Susana Munetarekin, eta buru-belarri aritu nintzen aurrerantzean. Aitzindariak izan ginen: herrietan baziren emakume pilotariak, baina inork ez zien federatzeko aukera luzatzen. "Hara piztia arraro hau, utziko du momenturen batean. Edo bestela,

zoko honetan joka dezala". Pentsamolde hori zegoen indarrean. Gu herriz herri genbiltzan, eta jendea zur eta lur gelditzen zen. Mutilen aurka jokatzeko ginen, ez zegoen besterik, eta harro diogu finalak jokatu eta txapelketak irabazi genituela.

Zenbaitentzat, porrot handia izango zen zuen aurka galtzea.

Berotzen hastean, pilota ez ziguten lehen koadroa baino urrutiago bidaltzen. Nik Susanak baino pazientzia handiagoa nuen, eta ez nien kontra egiten. Pentsatzen nuen pilota oso hotz zegoela oraindik, eta horregatik emango ziotela horren ahul. Susana gogaitu egiten zen, eta sekulako zartakoa ematen zion azkenean. Zazpiraino bidaltzen zuen, eta hortik aurrera, serio hartzeko gintuzten. Eta gero, irabazten bagenien, denetariko aitzakiak jartzen hasten ziren. Txantxa bezala hartzen nituen halakoak. Berdin zidan aurkariak nola begiratzen gintuzten; pilotan aritu besterik ez nuen nahi.

“ ”

*Pentsatu gabe
egin ditut gauzak.
Ospitalean hiru
txandatan aritu behar
nuen, eta askotan, jan
edo lo egin gabe joan
naiz jokatzera*

Asko gozatu duzu, baita irabazi ere. Denak merezi izan duela sentitzen duzu?

Erabat. Ikaragarri gozatu dut. Batzuetan gauza itsusiak bizi behar izan ditut, baina ez zaizkit iltzatuta gelditu. Gogor egin dut lan, baina ez dut sakrifizio bezala hartu, gustura egin dudalako, eta sekulako emaitzak izan ditudalako: zazpi Munduko Txapelketa jokatu ditut, eta urrezko bi domina, zilarrezko lau eta brontzezko bat lortu. Munduko Kopan, berriz, urrezko bost ditut. Halere, garaipenek bezainbeste betetzen naute pilotari esker izandako bizipenek. Pertsona eta toki zoragarriak ezagutu ditut. Itzela da.



Nola lortu duzu pilota alor profesionalarekin uztartzea?

Pentsatu gabe egin ditut gauzak. Ospitalean hiru txandatan aritu behar nuen, eta askotan, jan edo lo egin gabe joan naiz partidak jokatzera. Eta bueltan, gauez, berriz ere lanera. Gelditu eta hotzean hausnartu izan banu, agian sekulako ahuldadea hasiko nintzen sentitzen. Pilotarekiko dudak afizioa gailendu da. Kosta ala kosta, jokatzeko eta neska gazteei irakasten jarraitu nahi izan dut. Ordu asko eskaini dizkiot pilotari, dudak guztia eman diot, eta atzera begiratuta, harritu egiten nau nola ibili naizen ikusteak. 21 urterekin hasi nintzen ospitalean lan egiten, eta Espainiako selekzioan 27 urtez aritu nintzen. Eta asteburu batzuetan, lauzpabost partida izaten nituen. Atera kontuak.

Erraketisten garaian, aurreko mendearen hasieran, emakume pilotariak profesionalak izan ziren. Zuk, ordea, ez duzu ia zentimorik ere jaso, birritan munduko onena izan arren.

Pilotarekiko maitasun hutsez aritu naiz. Niretzat, paradisua izan da txapelketak jokatu ahal izatea, ezeren truke izan arren. Garai horiek bizitzea tokatu zitzaidan, eta pena ematen dit. Alde itzela dago duela 100 urte erraketistek bizi izandako egoerarekin. Eibarreko eskolak 200 emakume zituen, eta gehiago ziren emakumeen lizentziak gizonenak baino. Familia askoren sostengua izan ziren erraketistak. Diru asko irabazi zuten. Pilotalekuak betetzen zituzten Bartzelonan, Madrilan edota Sevillan, eta batzuk Ameriketara joan ziren. Egungo tenislariak bezala ziren hartuak. Ordea, diktaduran debekatu egin zitzairen pilotari. Historia ezabatzen saiatu ziren. Ni jaiotzerako, inork ez zuen emakume pilotarien berri.

Asko jota, 2.000 euroko beka eman dizute lau urterako. Kopuru irigarriak jaso dituzu: adibidez, Espainiako Txapelketa bat bederatzi euroren truke jokatu zenuen.

Munduko txapeldun izanda, Miguel Indurain beka ematen zizuten Nafarroan. Hori zen lor nezakeen diru-sarrerarik handiena. Eta zuk aipatutako bederatzi euro haiekin, hoteleko gosaria ordaintzeko ere ez genuen. Nire ustez, arazoa diruaz harago zihoan. Orain, geroz eta erraztasun gehiago dute neskek, teknifikazio aldetik eta abar. Guri, ordea, trin-

ketea ez zigun inortxok ere ordaintzen. Gaueko bederatzietatik hamaiketara aritu behar izaten genuen, pilotalekua libre gelditzen zenean. Ordu bata aldera iristen ginen etxera.

“ ”

Orain arte izan ez diren baldintzak ari gara eskaintzen Adosen. Benetako profesionalismoaren abiapuntua izatea espero dugu

Ez zenuen sekula izan dena pikutara bidaltzeko bulkada?

Ez. Halere, haserrea eta etsipena sentitu izan ditut, ez dut ezkutatu. Ez zitzaidan bidezkoa iruditzen mutilek, askoz ere gutxiago eginda, profesional bihurtzeko aukera edukitzea, eta guri, berriz, bidaietarako erregaia ere ez ordaintzea. Nik pasioari esker jarraitu dut pilotari; ordea, gaitasun handiko neskak ikusi ditut amore ematen, gutxienekoa ere ez

zailak eman pilotari aritzearen truke. Orain gauzak aldatzen ari dira, eta horrek izugarri poztzen nau. Nire iloba Olatz sei urterekin hasi zen jokatzeko, hemeretzi dauka orain, eta hegoak ez dizkio inortxok ere moztuko. Pausoak oso geldoak dira, baina eman egin behar dira.

Urrats handia egin zenuten iazko maiatzean, Ados Pilota elkarteak sortuta.

Ez geneukan beste irtenbiderik. Ematen du bibote eta gorbatadun gizonak etorri behar duela salbatzaile bezala, baina nik 48 urte ditut, eta konturatu naiz pilotariok atera behar ditugula babak eltzetik. Bestela, inork ez du apustu egingo gure alde. Guk erabateko konpromisoa dugu gure onena eman eta geroz eta pilota hobea eskaintzeko. Trukean, babes apur bat besterik ez dugu eskatzen. Berdintasunaz asko hitz egiten da, baina telebistak eta babesleek benetako apustuak egitea behar genuen. Iera Agirrek eta biok egoeraren azterketa egin genuen, eta ikusi elkarte bat sortzeko beharra zegoela. Batzuek beldurra zuten, guk geuk eman behar genuelako urratsa, inoren zain egon gabe.

Zer balantze egiten duzu ia urtebete egin duzuen ibilbideaz? Emakumezko pilotarien lehen klub



PUNPA-LASTER

Pala edo esku-pilota?

Oraintxe, esku-pilota, pala ere zoragarria den arren.

Frontoi bat?

Urbasakoa.

Bikote bat?

Iera Agirre, edo nire iloba Olatz. Aurkari gisa ere, haiek aipatuko nituzke.

Partidarik bereziena?

2019ko San Fermin Torneoko finala. Galdu arren, itzela izan zen Labrit beteta ikustea.

Garaipenik handiena?

Agian, 2010eko Munduko Txapelketa. Oihartzun handia izan zuen.

Unerik zailena?

Aita hil eta biharamunean Munduko Txapelketa jokatzeko deitu ninduten. Gogorra izan zen joan edo ez erabakitzea. Baiezkoa eman nuen, eta aita gogoan, finaleraino iritsi nintzen.

Zer eman eta kendu dizu pilotak?

Zoriona eta bizitzeko modu bat. Gauza asko galdu dut etxean, baina beti babestu eta ulertu naute.

Pilotari izan ez bazina?

Botilero izango nintzen, kar-kar!

Zaletasunik gustukoena?

Mendira joatea. Eta zehazki, Urbasara. Toki asko ezagutu dut, baina hau bezalakorik ez dago munduan.



profesionala da, eta orain arte izan ez diren baldintzak ari gara eskaintzen pilotariei. Benetako profesionalismoaren abiapuntua izatea espero dugu. Gainera, burujabetza aldetik ere abantaila handia ematen digu Adosek, pilotariok garelako klubaren kudeatzaileak. Udan Plazaz Plazaz txapelketa antolatu genuen, eta berriki binakakoa jokatu dugu. Babesle garrantzitsuak lortu ditugu, eta horri esker, pilotariak kontratupean aritu dira azken bi hilabeteetan, txapelketak iraun bitartean. Gainera, oso pozik gaude egiten ari garen teknifikazio lanarekin. Besteak beste, Juan Martinez de Irujo eta Patxi Eugi ari zaizkigu laguntzen. Luxua da haiekin lan egin ahal izatea.

Pilotalekuetan zer giro dago orain emakumeek jokatzen duzuenean?

Jendea harrituta gelditzen da, eta gozatu egiten du. Oso joko polita egiten omen dugu. Batzuetan mutilekin konparatzen zaigu, eta hori akatsa dela uste dut. Ezin zaigu alderatu. Gustatuko litzaidake pilotan Zabaletak adina jotzea, baina ez da posible; eta horrek ez du esan nahi guk egiten duguna okerragoa denik. Besterik gabe, jokatzeako modu ezberdinak ditugu: mutilak oldarkorrak dira, eta guk azerikeria gehiago egiten dugu. Kontua da, gozatu egiten dutela orain arte soilik gizonezkoen pilota ikusi duten zaleek, eta zoriontzera etortzen zaizkigu. Askok poztu nau horrek, jabetzen naizelako egoerak nabarmen egin duela hobera.

Esan duzunez, zure iloba ere pilotaria da. Nolakoa da harekin aritzea? Eta zer duzu nahiago, harekin bikotea osatu, ala haren aurka jokatu?

San Ferminetan aritu ginen aurrenekoz elkarrekin, lagunarteko batean. Itzela izan zen. Txikia zenean, noizbait Amerikak egingo genituela esaten nion. Oraindik gogoan du, eta galdetu ohi dit ea noiz joango garen Ameriketara. Niretzako, ametsa da: nork esango zidan, hainbeste urteren ondoren, berriz ere esku-huska jokatzen hasiko nintzela, eta nire ilobarekin batera? Halere, ez pentsa oparirik egiten diodanik, eta berak ere eginahalak eta bi egiten ditu irabazteko. Oraintxe bertan, nahiago nuke berarekin bikotea osatu, kar-kar! Biok atzelariak gara, eta pilota utzi aurretik, txapelketa bat berarekin jokatzea gustatuko litzaidake. Etxean, gehiago dira bere aldekoak; nik jada asko irabazi omen dut. Eskerrak anaia Patxik babesten nauen!

Noiz arte jarraituko duzu ekinean?

48 urte ditut, baina ez dut horrela sentitzen. Entrenamenduen ostean, belarriek ere min ematen didate; baina biharamunean, jokatzeako pronto nago berriro. Nahi dudana egiten dudalako sentitzen naiz nekatuta. Gainera, bi urte eskas daramatzat pilota mistoarekin jokatzen. Ilusio aldetik, hasiberri baten pare ikusten dut nire burua. Gorputzak erantzuten jarraitzen duen bitartean, ez dut pilota uzteko asmorik. ●

IRAETA ETA AIZARNA AUZOAK ZESTOAN

Etxeak eraikitzeak euskarari nola eragiten dion pentsatzen al dugu?

Iraeta auzoko etxe “berriak” ezagunak dira, berriak-edo, 2006rako bukatuta baitzeuden. Lehendik zeuden etxeen ondoan, “abenidaren” ondoan, eraiki zituzten. Kolpera auzoko bizilagun kopurua ia bikoiztu egin zen. Hain euskalduna den auzo txiki batean zein bizilagun etorriko diren jakin gabe etxe saila egiteak zein eragin du auzoko hizkuntzan? Aizarna auzoan esperientzia desberdina izan dute, kooperatiba baten bidez hamabi etxebizitza egin eta gero bizilagun berri guztiak euskaldunak dira.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANBOLIN

danbolin

Erreportaje hau Danbolinek argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Zestoako Iraeta auzoan azkena egindako etxe blokea.



Arritxu Zelaia Ueman, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, ari da lanean, hizkuntza aholkularia da eta horretantxe egiten du lan: hirigintzaren eta hizkuntzaren arteko harremanak aztertzen ditu. Iraeta auzoa gertuko zaio. Aita Aizarnakoa du eta ama Iraetakoa. Bera Zestoan jaio zen eta ondoren Azpeitira joan zen bizitzera. Gaur egun Ean bizi da. Iraetako etxe eraikuntzaren berri izan zuen eta bere ikerketa lanetan Iraetako kasua azaltzen du. Bera izan dugu artikulatu honetan bidelagun auzoan gertatutakoa kontatzeko.

Eta nola lotzen dira hirigintza eta euskara? Arritxu Zelaiak horrela dio: “Etxebizitza berriak egitea ez da gauza neutroa, hirigintza teknikariak eta arkitektoak konturatu dira kontua ez dela marra batzuk egitea besterik gabe, marra horiek (etxebizitzek) ondorioak daukate”. Ondorioek ez daukate zertan denak txarrak izan, etxe berriak egitea mesederako izan daiteke, baina garrantzitsuena da aurrez jakitea zer egiteko asmoa den eta horrek zein ondorio eragin ditzakeen. Adibide baten bidez azalduta, ez da gauza bera

urbanizazio handi bat egitea Donostiako auzo jendetsu batean edo herri txiki bateko auzo txiki batean. Auzo horretan euskararen ezagutza maila oso handia bada, nola eragiten du denbora tarte txikian etxebizitza asko egiten bada? Euskaraz ez dakien jendea etorri bada? Bizilagun zaharrek eta berriek elkar topo egiteko moduak ez badira jarri eta elkarrekin harremanik ez badute? Hizkuntza aholkulariak arnasguneak kaltetzeko arriskuaz ohartarazi du: “Arnasgune deitzen diegun udalerri euskaldunetan biztanleen %80tik gora dira euskal hiztunak, Zestoan adibidez. Gune horietan euskaraz bizi gara eta euskaraz bizi gaitezke, baina bereziki zaindu beharreko lekuak dira”.

IRAETAREN ERRADIOGRAFIA

Zelaiak proposatzen du etxeak egiten hasi aurretik bi gauza kontuan hartzea: oreka eta bizilagunen arteko harremanetarako espazioak. Iraetako etxe sail berriaren adibidearen laguntzaz azalduko ditugu bi kontzeptuak. Orekari dagokionez, Zelaiak esango digu kontua ez dela etxerik ez egitea, herriek bizirik egoteko etxeak behar dituzte, gazteak

behar dituzte, baina etxe saila egiten hasi aurretik hainbat galdera egitea eraginkorra izan daiteke prebentzioaren ikuspegitik: Zenbat etxe egingo ditugu? Nolakoak izango dira? Zeinentzat dira? Zein prezioetakoak? Babes ofizialekoak ala merkatu librekoak? Zenbat denboran egingo dira etxeak?

Bost urtean egin ziren Iraeta auzoko etxeak, bi errenkada eta hainbat etxe solte. Lehendik 38 etxebizitza zeuden, bi errenkadetan 48 etxebizitza berri egin ziren eta etxe solteak zortzi izan ziren. Auzotar kopuruari dagokionez, Eustateko datuen arabera, 2005ean 108 ziren eta 2019an 183. Etxe berriak egin ondoren biztanle gehien izan dituen urtean 209 izan ditu. Esan daiteke ia bikoiztu egin zela biztanle kopurua. Zelaiak etxe saila arretaz begiratzeko eskatzen digu. Atariko atearen ondoan dagoen oharra hala dio: “Jabego pribatua, sarrra debekatua”. Etxeak elkarri begira daude, barrura begira baleude bezala, eta erdian, kanpotik ez ikusteko moduan daukate igerilekua. Ondoan dauden etxe bakarrek, inguruan, bi metro inguruko horma dute jendearen begiradetatik salbu. Bizkarra ematen egongo balira

Baserri sortaren atzealdea, etxe bloke berrirantz begira.



bezala, metro batzuk harantzago dago auzoko betiko baserri saila, Zestoan “abenida” deitzen diotena. Baserriak bata bestearen segidan eta era berean parez pare, ateak eta leihoak askotan irekita, fatxadako hormaren kontra atariko petrila eserita egon ahal izateko. Alde handia “abenida”ren eta etxe sail berriaren artean. Batzuk barrura gordeta eta besteak kanpora irekita. Etxe zaharren kaleak auzotarren arteko harremanak errazten ditu inondik ere, eta Zelaiak esango digun moduan, hitz egiteko, euskaraz hitz egiteko ere, harremanak izateko espazioak behar dira, non topatu eduki behar da. Eta non egiten dute topo bizilagun zaharrek eta berriek Iraetan? Elkartea dago, baina pribatua da. Uemako langileak futbol zelaia ere aipatu du, kirol ekipamendu handia, futbol talde egituratuentzat egindakoa, ez auzotarrek erabiltzeko pentsatutakoa. Beste xehetasun bat: umeen jolas parkeak. Berriena, azkena egindako etxe sailaren parean dago, eta beste bi haur parke utzita daude bizilagun zaharrenak bizi diren inguruan, ehun biztanle inguruko auzoan.

Zelaiak berriz azpimarratu du, udalerrri euskaldunetan euskarari eutsi nahi bazaio, etxeak egiteko orduan galdera asko egin behar direla. Eraikitzeak bere ondorio linguistikoak dituelako. Iraetako datuak ondokoak dira Eustaten 2016ko datuen arabera. Hasierako etxeetako iraitar guztiek dakite euskaraz hitz egiten eta etxe berrietakoen artean %67k. Beraz, auzoko euskara ezagutza %77koa da. Bizilagun zaharren %95arentzat etxeko hizkuntza euskara da eta bizilagun berrietan %42rentzat. Batez bestekoa: %58. Eta hirugarren datua, hasierako etxeetako bizilagunen %96rentzat lehen hizkuntza euskara da eta etxe berrietan bizi direnetan, berriz, %37rentzat. Batez beste, %54,3k du lehen hizkuntza euskara. Datuak argigarriak dira: datuek behera egiten dute bizilagun berrien emaitzak gehituz gero. Dena den, hizkuntzaren ezagutza datuak eta etxeko erabilera datuak dira, beste kontu bat da iraitarrek elkarrekin topo egiten dutenean zein hizkuntza erabiltzen duten.

Bi elementu aipatu ditu Zelaiak hasieran: oreka eta bizilagunen arteko harremanetarako espazioak. Berak uste du euskarari eragiten dioten eta kontuan hartu behar diren hainbat alderdi ez direla kontuan hartu eta horrek ondorioak izan dituela. Dena den, dena



Baserrien atariek ez dute itxitasun sentsaziorik ematen. Ez da harritzekoa atea edo leihoa zabalik topatzea paseoan doan bizilagunak.

*Auzoan euskararen
ezagutza maila
oso handia bada,
nola eragiten du
denbora tarte txikian
etxebizitza asko
egiten badira?*

txarra ez dela izan gaineratu du: “Auzoa gaztetu da, elkartean jende gehiago dago, dinamismo handiagoa dauka auzoak... [pandemia aurreko balorazioa da] baina kaltea txikiagoa izateko beste era batera egin zitekeen”. Zelaiak abiatu bat du: “Euskararentzat ona dena, herriarentzat ona da”.

AIZARNAKO ETXE BLOKEAN DENAK EUSKALDUNAK DIRA

Esan daiteke nahi gabe gertatu dela Aizarnan, alegia, hamabi pisu egin zituztenean ez zutela bereziki landu horrek zein eragin izan zezakeen Aizarnako euskararen ezagutza eta erabileran. Hala ere, etxea egin zuten moduagatik euskara irabazle ateratu da. Kontatuko dugu nola eraiki zituzten hamabi etxebizitza plaza-tik gertu-gertu 2008an eta nola bizilagun ia guztiak aizarnarrak eta azpeitiarrak

suertatu ziren; denak euskal hiztunak.

Zestoako Udala kezkatuta zegoen, Aizarnan bazelako bertan bizi nahi zuen jendea eta ez zegoen etxebizitzarik. Hutsune horri aurre egiteko asmoz bilera antolatu zuen auzoan. Bileraren berri ematen zuen kartela irakurri zuenetako bat izan zen Amane Arrue azpeitiarra. Guraso azpeitiarrek etxetxo bat erositako zuten Aizarnan eta Arruek bisitan joandako batean ikusi zuen kartela. Bi aldiz pentsatu gabe bileran plantatu zen. Hainbat bileraren ondoren udalak ikusi zuen hamabi bikote edo pertsonen interes berezia zutela Aizarnan bizitzeko. Den-denak bertakoak edo oso gertukoak ziren: aizarnarrak, azpeitiarrak, zestoarren bat eta ia egunero Aizarnan zebilen Aizarnazabalgo bikote bat. Jakina, ez da kasualitatea inguruko jendea elkartu izana, udalak deialdia modu horretan egin baitzuen, aizarnarrentzat batik batik, bilerarako kartelak Aizarnako kaleetan jarrita. Denek zuten lotura estua Aizarnarekin, denak euskaldunak ziren, gehienez ere 30 urte, eta guztiek argi zuten Aizarnan bizi nahi zutela, alegia, ez zutela etxea auzo horretan erositako etxebizitza merkeago zegoelako edo as-teburuetan hara joan nahi zutelako.

Udalak ez zuen proiektuarekin aurrrera jarraitu, lur zati bat kalifikatuta zuten lau etxe bakar egiteko, baina ez hamabi etxebizitza egiteko. Arrue eta gainerakoak berriz, aurrera egiteko prest zeuden eta azkenean kooperatiba sortu zuten helburua lortzeko. Denak buru-belarri sartu ziren egitasmoan, hamabi etxebizitzak egin zitezen la-



Amane Arrue eta Ane Aranburu Aizarnako bizilagunekin elkartu gara erreportajerako.

nean. Harri koskorrik handiena lurren birkalifikazioa izan zen, baina lortu zuten. Prozesua 2005ean hasi eta 2008an bukatu zen.

Bistan da, etxeak egiteko prozesua oso desberdina izan da Iraetan eta Aizarnan. Lehenengoan merkatu libreko etxebizitzak ziren eta edonork zuen aukera etxea erosteko. Bigarrenean berriz, auzoari begira hasi zuten bidea eta interes handia zuten inguruko jendeak eutsi zion proiektuari. Ez da kasualitatea 2008an etxea estreinatu zuten bizilagun denak euskaldunak izatea. Eustaten 2016ko datuen arabera, Aizarnako bizilagunen %97,3 euskalduna da eta Zestoa herriko bizilagunen %81,48. Aizarnazabalek eta Azpeitiak ere %80tik gorako ehunekoa dute.

Arruek kontaktu digu etxe blokearen jatorria, baina ez gara berarekin bakarrik elkartu tertuliarako. Aizarnan bizi den Ane Aranburu azpeitiarra ere batu zaigu. Arritxu Zelaiaren azterlana hizpide izan ez badugu ere, Aranburu segituan hasi da gogoeta egiten "oreka" hitza mingainean duela: "Erne ibili behar dugu. Etxeak egiteak eragina dauka hizkuntzan eta aldi berean ezin gara gelditu ezer egin gabe. Oreak bilatu behar da. Hurrengo belaunaldiak hemen


*Lehendik zeuden
etxeetako iratar
guztiek dakite
euskaraz hitz egiten
eta etxe berrietakoen
artean %67k
(2016ko datuak)*

gelditu nahi badu eta ez badago etxe eskaintzarik, pena litzateke". Arruek hari horri tira dio eta gai delikatuaz gogoeta egin nahi izan du: bertakoentzat egin etxeak ala kanpokoei ere aukera eman... "Bertako etxebizitza beharrari hartu behar zaio pultsua, haientzat pentsatuta egin behar dira etxeak eta aparteko beste norbaitek etorri nahi badu, etor dadila. Erosoagoa da denak bertakoak izatea, inguruko euskaldunak, baina oasi hauek hain dira irrealak! Ni eroso bizi naiz horrela, baina errealtatea beste

bat da". Auzora joaten diren erdaldun aleak euskalduntzen saiatu behar dutela dio Arruek, jakinda, sarri kontrakoa gertatzen dela, alegia, erdaldun bakanek euskaldun multzoa gaztelaniaz hizketan jartzeko ahalmena izaten dutela. Adibide on moduan jarri du gaur egun etxe blokean bizi den familia. Haurrari euskaraz ari zaie, batek euskaraz badaki eta bestea ikasten ari da. Arruek nabari du euskaraz aritzeko ahalegina egiten ari direla: "Plentzian biziko balira, agian honetzeko gaztelaniaz ariko lirateke". Gaur egun hamabi etxebizitzetan ez dira bizi hasierako pertsona berak, baina orain ere denak euskaldunak dira.

Kanpotarrei egiten zaien harreraren garrantzia azpimarratu dute Aranburuk eta Arruek, hesiak jartzen zaizkien ala bertako senti daitezten ahalegina egiten den. Euskarara hurbiltzen laguntzen zaien, eta era berean, ohartarazten zaien erdalduna taldean bakarria delako gaztelaniaz egiten denean euskaldunak deseroso sentitzen direla.

Kooperatibaren eskutik eraikitako etxe multzoko biztanleek euskara indartu besterik ez dute egin Aizarnan. Aizarnarrek erdi serio-erdi txantxetan esaten omen dute ez ote den gehitxo entzuten Azpeitiko hizkera. ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Sambaqui-ak eta klima aldaketa

Brasilgo hego-ekialdeko kostaldea, duela 2.500 urte. Mende luzez nagusiki itsaskiez elikatzen ziren komunitate egonkorak desagiten hasi ziren, *sambaqui*en tamainak eta kopuruak behera egiteak adierazten duenez. *Sambaqui* edo maskortegiak komunitate horiek kontsumitzen zituzten itsaskien hondakinez osatutako muino artifizialak dira eta, beraz, horiek aztertuta, gauza asko jakin daiteke populazio gune horiei buruz.

Zenbait adituk uste izan dute zeramika eta nekazaritza hedatu zirenean etorri zela maskortegien gainbehera. Beste elikagai iturri batzuk izanda, arrain eta moluskuekiko menpekotasunak behera egin zuen, eta, maskortegiak gutxitu ziren. Baina Alice Toso eta André Colonose ikerlariak buru dituen talde batek teoria hori irauli du guztiz, *Nature Scientific Reports* aldizkarian jakinarazi dutenez: jarduera ekonomiko berriek ez zuten eragin bizibide zaharra baztertzea; bizibide hura agortzeak ekarri zuen jarduera konplexuagoak garatzeko beharra.

Eta horren oinarrian klima aldaketa dago. Duela 2.500 urte inguru klima hozteak itsas mailak behera egitea eragin zuen. Tosoren hitzetan, "badiak eta aintzira txikitu egin ziren, ondorioz itsasoko baliabideak gutxitu ziren eta, gainera, ez zen erraza horiek aurreikustea. Azkenean, komunitateak barreiatu behar



THUGRUNER

Figureirinha | *sambaqui* edo maskortegia, Brasilgo kostaldean.

izan ziren, eta unitate sozial txikiagoak osatu izan zituzten".

Brasilgo *sambaqui* kontzentrazio handiena Babitongako badian dago eta ikerlariak bertako giza, animalia eta landare arrastoak aztertu dituzte maskortegien kulturaren gainbeheraren kronologia zehazteko. Historiaurreko populazio gune horiek bat batean itsasoko baliabide geroz eta eskasagoengatik lehiatu behar

izan zuten eta egokitzapen prozesu hori asko luzatu zen, mila urte baino gehiago, zeramika duela 1.200 urte inguru hedatu zela ondorioztatu baitute.

Finean, ikerlan horrek nabarmen adierazten du kostaldeko komunitate egonkorak, kooperazio eta erresiliენტzia maila handikoak izan arren, erraz desagertu daitezkeela klima aldaketaren eraginez. ●



SAMUEL ATKINS

Endeavour aurkitu dute ala ez?

Berriki Australiako Itsas Museo Nazionalak (ANMM) jakinarazi du James Cook esploratzaileak Australia eta Zeelanda Berrira lehenengoz iristeko erabilitako itsasontzia aurkitu dutela, Newporten (Rhode Island, AEB) hondoratuta dauden RI 2394 ontzi-hondakinak *Endeavour* ontziarenak direla "zalanazarik gabe". Egun berean,

ordea, Rhode Islandeko Itsas Arkeologia Proiektuak (RIMAP) adierazi zuen "goizegi" dela aurkikuntza baitatzeko eta "froga eztaba daezinik" ez dutela aurkitu. Gainera, gogoan izan behar da *Endeavour* ur haiek nabigatzen lehen ontzi "europarra" izan zela, baina lehenago bertako ontzi askok eta askok nabigatu zituztela. ●

ARTIZAR SERIGRAFIA



Jantziak ez dira zerutik erortzen, norbaitek egiten ditu

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

ARGIAren komunitatea, Argia jendea, ARGIAren lagunak... proiektuaren babesleei modu askotara hots egiteko formulak daude, babesleak ere askotarikoak baitaude. Izan daitezke produktu batzuen truke laguntza ekonomikoa ematen dutenak, sareko irakurleak, enpresako langile eta kolaboratzaileak, iragarleak, eta izan daitezke ere ARGIAk ateratzen dituen produktuen egileak, atzeko lanean aritzen direnak, beste enpresa batzuk akaso, baina enpresa lagunak.

Sekula pentsatu duzu, irakurle, non serigrafiatzen diren *Inor ez da ilegala* edo *Lurra herriari deika* proiektuetako kamiseta, jertse eta poltsak? Artizar serigrafia dugu honetan bidelagun. Amezketa dago Bernar Usabiagaren eta Eva Bereziartuaren tailerra, eta handik egiten dute gure jantziek La-sarte-Oriarainoko bidea.

2007ra egingo dugu atzera ARGIAk eskatutako lehen lana ezagutzeko. Zuetako askok atzo balitz lez oroitu-ko duzue argazkiko bonbilla hura, ez da hala? Pasa dira hamabost urte eta

harreman estua izaten jarraitzen dute ARGIAk eta Artizarrek. Gaur egun *Inor ez da ilegala* kanpaina sustengatzeko jantzien hornikuntzara dute bideratua lana, baina, noski, ez da egiten duten lan bakarra; publizitate-inprimaketako ohiko tailerren moduan, serigrafia lanak egiteaz gain, tanpoigrafia eta termoinpresioarekin ere egiten dute lan. Ikus ditzakezue beren lanen adibide asko artizarserigrafia.es beren webgunean.

Lurra herriari deika kamiseten kasuan, gainera, lortu zen %100 kotoi organiko egindako materiala eskuratzeara eta lan gehigarri bat eskatu zuen hornitzaile egoki bat bilatzea. Belgikatik heltzen dira Amezketa materialok eta bertan serigrafiatu.

"ARGIA lagun on askoren etxea da eta beti egongo gara eskertuta bere hornitzaileetako bat izateagatik", azaldu digute. ARGIA proiektua aurrera ateratzeko atzeko lana egiten duten lagunentzat ez dugu esker on hitzik baino. Plazera da horrelako kidez osaturiko komunitatea izatea. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Duela urte batzuk ezagutzen dut ARGIA. Azkenaldian albiste kritikoak aurkitzen ditut bertan, errealitate ezberdinak plazaratzen dituztenak. Bilboko Irola irratiko programa batean esaten duten moduan, *La historia desde abajo* (historia behetik) kontatzen duzuela uste dut. Gogoz eta ilusioz harpidetu naiz. Eutsi eta mila esker!"

Gasteizko Josu

"ARGIA aldizkarian irakurri izan dudana zenbait artikulua beste inon ez dudalako topatu. Beste ikuspuntu bat eskaintzen dute"

Bilboko Itziar

"Begirada irekia eta kritikoa duzuelako, eta ahots askoren isla zaretelako"

Ormaiztegi Ane

"ARGIAren irizpide kritiko eta independentea sustatu nahi dudalako, euskarazko hedabideak sustatzearekin batera"

Orendaingo Gorka

"Kalitatezko eta euskarazko kazetaritza bultzatu nahi ditudalako"

Durango Irati



ZER ZUR, EGUR, ZERTARAKO?



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zurak eta egurrak gure aurrekoen bizitzako zutikak eta makulu izan dira. Energia iturri berriztagarria, eraikuntzarako gai paregabea, altzarigintzarako, ontziak egiteko, musika tresna, jostailu, artelan... Gaur egun bueltan datorzkigu zura eta egurra: etxe barru gozoak egin nahi ditugunean, bertako energia erabili nahi dugunean... Material bikaina da zuhaitzek eta arborek ematen dutena, prestua eta jatorra.

Ohiko erabilera ezagun horiez gain, enborretatik eta adarretatik eratorritako gaiek beste erabilmolde batzuk ere izan dituzte. Azaletik ateratzen dugun kortxoa edo tortotxa ezaguna da, batez ere artelatzena (*Quercus suber*). Sukaldean hain gurea dugun kanela kanelondoaren (*Cinnamomum verum*) barruko azala da. Kinaren zuhaitzaren (*Cinchona officinalis*) azaletik kina ezaguna lortzen da, malariari aurre egiteko lehenengotako botika. Azaleko tanino asko erabili izan dira larruak ontzeko.

Konifero batzuen azalaren erabilera bitxia proposatu zuen Yudinek 1986an: aziendarentzako bazka, elikagai osagarria. Pinu (*Pinus spp.*), zedro (*Cedrus spp.*) edota izei (*Abies spp.* eta *Picea spp.*) zuhaitzen 6 kilo azal eho, perretxiku mizelio, 1-2 kilo belar ondu edo silozuloko, 70 gramo gatz, 50 gramo P-Ca osagarri eta 2 kilo landare edo arrain hondakin 5 orduz lurrunetan egosi, 20-30° C-tara hoztu eta kitto. Behiak eta txerriak elikatzeke, eguneko 0,5 kg-ko dosietan. Luarra edo samatsa sortzeko ere ez da txarra enbor azala. Luar pila harrotu egiten du, eta horrek lehen hartxidurak sustatzen ditu.

Urkiaren (*Betula spp.*) azala aldean eramateak xirmi-xarmetatik, sorginkeriatik eta begizkoetatik babesten duela diote. Intsusarenak (*Sambucus nigra*), berriaz, haluzinazioetatik urrunduko zaitu.

Azti, sorgin, belagile eta igarleek aztikeriatan eta igartze antzetan erabil-



Argazkian, zedroa. Honen eta beste konifero batzuen azalarekin aziendarako bazka egiten da. Horrez gain, zedroaren zurak gaitasuna omen du armiarmak, sitsak eta arkakusoak uxatzeko.

tzen dituzten hagaxkak intsusa, hurritza (*Corylus avellana*), xarma (*Carpinus betulus*) eta igarle- edo azti-hurritzaren (*Hammamelis virginiana*) txarden-go adarrekin egin izan dira. Hurritz mota horren euskal izenik ez dut topatu, eta galegoz erabiltzen dituzten biak ekarri ditut.

Papergintzan zelulosa egiteko, izeia, pinua, alertzea (*Larix spp.*), eukalipto (*Eucalyptus spp.*), urkia, lertxuna (*Populus tremula*), makala (*Populus nigra*), pagoa (*Fagus sylvatica*), astigarra (*Acer spp.*), tuliperoa (*Liriodendron tulipifera*) eta abar erabiltzen dira.

Zedro zurak armiarmak eta sitsak uxatzen dituela diote. Zedroak berak eta haltzak (*Alnus glutinosa*), haginak (*Taxus baccata*) eta mitreak (*Myrtus communis*) arkakusoak urruntzeko indarra omen dute. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Intxaur amerikanoari noiz adarrak moztu?

📍 **Anamari Atxaga**

Intxaurren amerikarra (*Juglans nigra*) ez da maiz ikusten den arbola. Zorionak inguruan baten bat baldin baduzu. Adarrak mozteko sasoi onena izerdia mugitzen duenean da eta ilbeheran. Martxoko ilbeheran, alegia.

.....

Kaixo

Jakin nahi nuke ilarraren hazia noiz erein behar den, hau da, zer ilargirekin. Nik jarri ditut "creciente" n baina esaten didate "descendente" an izan behar dela.

📍 **Jaione Garmendia**

Ereintza lanak ilgoran egiten dira. Gaztelaz *ascendente*. Ahal baduzu lore edo fruitu egunean.

.....

Kaixo Jakoba

Urdazubitik galdetu nahi nuke! Noiz erein dalian bulboak?

📍 **Socorro Jimenez**

Otsaileko ilbeheran egin dezakezu, eta Urdazubin baita martxoan ere, lasai asko. Otsailean 13 eta 25 tartean, 18an ezik; martxoan 12tik 23 eguerdira arte. ●

JAUREGIA ESNEKIAK

"BEHI ESNE EKOIZPEN INDUSTRIALA AGORTUA DAGOELA USTE DUGU"



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Desintentsifikatzeko bidea hartu duen Karrantzako Vista Alegre baserriaz duela gutxi idatzi genuen, eta antzeko hautua egin duen Baztango beste proiektu batekin gatzoz aste honetan: Jauregia esnekiak. Anizen, familiaren behi esne ekoizpenarekin jarraitzea erabaki dute bertako bi semeek, baina eredu aldaketa nabarmenak eginez. "2004 arte gure ekoizpen guztia esne industriari bideratzen zen, baina urte horretan gu geu eraldatzen hasi ginen, eta 2009tik, ez diogu ezer saltzen industriari", azaldu du Mikel Azkarate Tomassone Jauregiako kideak.

NAFARROAN AITZINDARI

2000. urtean hasi zen Azkarate aitarekin lanean, hasiera hartan eredu intentsiboan. Handik gutxira, ordea, Aitor anaiak haiekin lanean hasi nahi zuela eta lanpostu berria sortzekotan zirela, horretarako 30 behi gehiago jarri beharra zituztela esan zieten Nafarroako Gobernutik. Jauregiako kideek ez zuten hori nahi, ordea, eta bestelako eredu bila hasi ziren. "Zer gertatzen zen? Nafarroan inork ez zuela etxean behi esnerik eraldatzen eta denok industriari saltzen genuela", dio.

Bila hasi eta azkenean, Ipar Euskal Herrian topatu zuten haien galderaren erantzuna: "Han esperientzia handiagoa zegoen, eta datuek zioten hirugarren lanpostua sortzeko bederatzi tona gazta ekoitzi behar genituela". Kalkulagailua hartu eta kalkuluak egiten hasi ziren: 9 tona gazta = 90.000 litro esne = 10 behi. "Datu horiek aurkeztu eta, azkenean, gobernuak gasnategia sortzea onartu zigun". Behin anaia lantaldean sartuta, gazta ekoizpenari ekin zioten, eta eraldatzen zutenarekin eta 2008an Elizondon jarritako esnea saltzeko makinarekin, industriari saltzen zioten esne kantitatea txikitzen joan ziren.



PAUSO BAT AUERRERA, EKOLOGIKORA

Momentu hartan boom moduko bat bizi izan zutela kontatzen du Azkaratek, eta ekoizpen ekologikora salto egiteko aprobetxatu nahi izan zuten aukera. "Eredu ekologikoan hektareako bi behi eduki daitezke gehienez, eta guk momentuan 100 behi genituen 22 hektareatan", dio. Berriz ere kalkulagailua atera, eta zera erabaki zuten: behi kopurua jaitea eta hurbilean nekazaritza uzten ari zen jendeari lurra alokatzea. "51 buru ditugu gaur egun, 35 hektareatan". Buru kopurua jaitsita ere, prozesu osoa haien gain hartzearekin, sei lanpostu dituzte gaur egun Jauregian.

Dena den, eredu aldaketarekin hasi zirenean antzeko esperientzia gutxi zeuden, eta onartzen dute hasmentan zailtasunak ere izan zituztela. Urte batzuk geroago, ordea, hartutako bidea egokiena dela argi dute: "Betiko ekoizpena industrialagortua dagoela uste dugu guk; arazo latzak sortzen ditu ingurumenean eta alor sozialean, herriak husten ari dira... badira bestelako eredu errentagarriak". Hurbilean saltzen dituzte Jauregiako esnea, jogurtak, batidoak eta gazta: Baztan-Bidasoa inguruan eta Iruñean, eta dendezen gain, kontsumo taldeetara eta hurbileko eskola txikietara jantokietara ere iristen dira. "Gure kabuz bilatu behar izan ditugu bideak, hanka sartuz, baina gaur egun nahiko egoera onean gaude", amaitu du. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

www.bizibaratzea.eus



Sendabelarrek dakitena

Garbiñe Larreak liburua aurkezteaz gain sendabelarrei buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Martxoak 2** 19:00etan.

📍 **Hernanin** Ereñotzu auzoan.

🕒 **Martxoak 11** 19:00etan.

📍 **Ultzaman** Larraintzargo aretoan.



Bizi baratzea

Jakoba Errekondok hitzaldia eta landareen kontsultategia egingo du.

🕒 **Otsailak 24** 17:00etan.

📍 **Hendaia** Balea elkarte

Zure herrian liburu hauen hitzaldia antolatu nahi?

Garbiñe Larreak sendabelarrez edo Jakoba Errekondok baratzeaz gakoak emango dituzten hitzaldirekin bat antolatu nahi baduzu, idatzi bizibaratzea@bizibaratzea.eus helbidera eta berehala jarriko gara zurekin harremanetan.

B A G I N E N B A G G A R A

ETA IZANGO GARA



Baginen Bagara. Emakume artistak: ikusgarritasun(ez)aren logikak San Telmo Museoko 2022ko erakusketa handia izango da. Bi urte iraun duen ikerketa sakonaren emaitza da proiektua, eta museoaren bilduma nola eraiki den aztertzen du: zer-nolako erosketa-politikak eta logikak izan diren nagusi museoko ondarea eratzeko garaian eta, batik bat, emakumeen lanek hamarkadatan izan duten ikusezintasunaren zergatiak argitara ekartzeko proposamena da.

 JONE ALAITZ URIARTE  OSKAR MORENO



Hutsuneak. Faltak. Absentziak. Gakoak. Espazio zurriak. Bete gabeko hormak. Izenik gabe erregistratutako lanak. Ikertu ezineko legatuak. Artearen historian ikasten ez diren artisten izenak. Museoetan ikusten ez diren artisten lanak. Horiei atentzioa jartzeak badauka bere garrantzia, baita urgentzia ere. *Baginen Bagara* erakusketak San Telmo Museo-ko bildumako parte diren artista emakumeen lanak ekarri ditu aretora. Ez da emakume artisten erakusketa, baina bada erakusketa bat zeinean lehenengo aldiz erakusten diren San Telmo Museo-ko, Gordailuko eta Kutxa Fundazioko bildumetako emakume artisten lanak. Horretarako, erakusketako komisiarioek, Haizea Barcenillak eta Garazi Ansak, museo-ko bilduma nola eratu den aztertu dute eta osatze prozesu horretan emakume artisten lanen eskasiaren zergatiak aztertu dituzte.

Ezin da ukatu museoetako bildumak, izan artistikoak, etnografikoak edo historikoak, aparatu legitimatzaileak direnik. Bildumek diskurtso kanonikoak sortzen dituzte artelanen, objektuen, artxiboen eta sortzen dituzten ibilbideen bitartez, sasi objektibotasun baten babesean; eta kontatutakoak, erakutsitakoak eta multzokatutakoak izate legitimatzaile eta egiazkoak izatera pasatzen dira. Ikusi besterik ez dago 1937an, Paul Rivetek Parisen sortu zuen *Musée de l'Homme*-k Mendebaldekoak ez ziren kulturen inguruan egindako irakurketak edo espoliazioak eta gerrak tarteko, museoek nola iraunarazi duten kolonialismoa eta zapalkuntza galerietan kontatuko eta berretsitako diskurtsoen bitartez. Kontakizun horiek birpentsatzea, kolekzioak berrirakurtzea eta bildumetako fondoak beste begirada batzuen menpean aurkeztea orain urte batzuk egiten hasi zen praktika kuratoriala da –izan feminismotik, izan arraza-

aniztasunetik, izan mikropolitiketatik edo aniztasun kulturaletik-. Espainiako Estatuan, Madrilgo Reina Sofia Museoa izan zen lehenetarikoa bere bilduma berrantolatzen eta gaika aurkezten. Gasteizko Artium Museoa eta Bilboko Arte Ederren Museoa ere gerturapen berriak proposatu dituzte, adibidez, *Zeru bat hamaika bide* eta *68aren ostean* proposamenen bitartez.

Beraz, museoak diskurtso sortzaileak diren neurrian, espazio politikoak dira eta, horregatik, borrokatu eta jabetu beharreko espazioak. *Baginen Bagara* erakusketak museo beste modu batean irakurria izateko saiakera egiten du, beste kontakizun bat/zuk sortzeko proposamena, Donostiako museoan denbora luzean ikusezinak izan diren emakume artisten lanei lekua emanez eta artearen historia kanoniko eta patriarkala zailtzean jarritz. Erakusketa bi ataletan dago banatuta, izenburuak markatzen dituen bi hitzei segika. *Baginen* atalean, emaku-

me artista horietan jartzen da fokua eta azaltzen du zergatik izan diren baztertuak, zergatik den hain zaila beren lanen inguruko ikerketa egitea gizonezkoen inguruan dagoen informazio eta bibliografiarekin alderatuta; eta zein mekanismoren bitartez joan diren horien obrak museoetara batzen.

Orain dela 120 urte, San Telmo Museo sortu zenean, batez ere udatiarrek, artistek eta Donostiako familiak egin-dako dohaintzei esker hasi zen bilduma osatzen. Lehen opari horietan apenas zegoen emakumezko artisten obrarik. 1919an erosi zitzaion lehenengoz emakume artista bati obra bat, museo ireki eta 20 urtera: Victoria Malinowska artista poloniarraren *Ondarruko arrantzale txikiak* obra izan zen, hain zuzen ere, lehen erosketa hori. Eta 1939. urtean jaso zen lehenengoz emakume artistaren obra dohaintzan: Julia Alcayde Montoyaren *Fruituak eta loreak* margolana. XX. mendearen bigarren hamarkadatik aurrera antolatzen hasi ziren Gabetako Lehiaketatik, Artista Berrien

Lehiaketatik edo Gipuzkoako Emakume Pintoreen Lehiaketatik eratorritako sariak izan ziren bilduma osatzen joateko iturria eta horien eraginez hasi ziren emakumeen obrak gutxinaka-gutxinaka bilduman txertatzen. 2000. urtetik aurrera, museo era sistematizatuan hasi zen emakume artisten lanak erosten, antolatzen zituen aldizkako erakusketetatik batik bat.

Artearen historia patriarkala zalantzan jarri nahi du erakusketak, emakume artisten lanei lekua emanez

Errenazimendu garaiko arte-akademia italiarren antza sumatzen zaion arkitekturak zuzentzen du ibilbidearen lehen zati hau. Genero piktorkoen inguruan sailkatuta dauden XX. mendeko pinturak –gorputza, erretratu etxetiarak, autorretratuak, aulkiak...–, aurkitzen ditugu lehen galerian. Badaude positiboki atentzioa pizten diguten obrak: Rosa Valverde, Marta Cárdenas, Coro Acarreta edo lehen aipatu dugun Victoria Malinowskaren artelanak bereziki egin zaizkit interesgarriak, baita Irene Laffittek margotutako oilarrak ere. Erakusketaren museografia ausarta denik ezin da ukatu, beste gauza bat da hartutako erabakia egokiena ote den. Museoetan artelanak erakusteko modu estandarizatuaz, aseptikoaz eta onartuenaz apurtzeko saiakera interesgarria eta txalogarria bada ere, horma koloretsu horien hautuak artelanen autonomia baldintzatzeko arriskua dakar eta artelan askoren irakurketan interferentziak sortzen ditu zenbait obren kalterako.





Bagara atalean aldiz, garaikidea-
goak zaizkigun artisten lanak aurki
ditzakegu eta, pintura egon badagoen
arren –adibidez, Mari Puri Herrero edo
Idoia Montón-en margolanak–, eskul-
turak presentzia handia du, batez ere
90eko hamarkadaren bueltan eginda-
ko artistena: María Luisa Fernández,
Elena Mendizabal, Gema Intxausti edo
Miren Arenzana. Ana Laura Alaezen
tamaina handiko argazkia, Zuhar Iru-
retagoienaren instalazioak edo Itziar
Okariz eta Erlea Maneros Zabalaren
bideo-lanak –azken honen obra Museo
Bikoitza proiekturako aurkeztu zen–,
ezagunak egiten zaizkigu lehenago ere
San Telmon bertan erakutsi izan di-
relako. Bigarren ataleko espazio hau
nahiko iluna suertatzen da eta kasu
batzuetan obrak pilatuta nabari dira;
eta agian, diskurtsoan disolbatuagoak
sumatzen dira lehen atalarekin alde-
ratuta. Hala ere, azken bi hamarka-
detan egindako erosketen isla nabari
da kapitulu honetan, baita 90eko ha-
markadako obren legatua ere. Arte-
lekuren esperientziak ere badu bere
tokia *Bagara* kapituluan. Erakusketak
badu problematikoa suerta litekeen



aspektu bat ere, emakumeen lanak ga-
raian garaiko arte-mugimenduen bai-
tan kokatzen zirela adierazteko, Peio
Irazu, Nestor Basterretxea, Vicente
Ameztoy edo Amable Ariasen lanak
ekarri baitira.

Bilduma jakin batekin aritzeak beti
dakar muga bat eta San Telmo Museoa-

ren kasuan, bertan jasotako lanen aniz-
tasunak markatzen du *Baginen Bagara*
erakusketako esperientzia. Dena den,
ezagutzen ez genituen artista askoren
lanak ezagutzeko abagune interesga-
rria da eta gure historiografia artisti-
koa berridazteko abiapuntua izan lite-
keen proiektua da. ●



LIBURUA

Hizkuntza eta gatazkak



BIHOTZA NEGAR ETA IRRI

MARYSE CONDÉ
ITZUL: J. M. BERASATEGI

EREIN & IGELA, 2021

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Ez dut frantsesez ezta kreoleraz idazten: *Marysecondé* idazten dut". Horixe azaldu zuen *Bihotza negar eta irri* liburuaren idazleak 2016an. Joxe Mari Berasategik hizkuntzaren erabilera propio hori ekarri du euskarara Erein eta Igela iaz argitaratu zuten narrazio bilduma la-burrean.

Iruditzen zait hizkuntza baino arras gehiago euskaratu dela sortzaile guadalupetar eta Nobel sari alternatiboaren irabazlearen hizkuntza-erabilera partikularra itzultzean. Hau da, gizarte gatazken, egiturazko zapalkuntzen eta botere harremanen zirkulazioaren erradiografia literario kokatua da *Marysecondé*. Horixe dago orain euskaraz irakurgarri.


Izan ere, *Marysecondé* ez da bakarririk azentu anitzekoa. Ez da aldatuko soilik klase sozial ezberdinen hizkuntza erabileraren arabera. Condéren literaturak borroka-eremu bilakatzen du *Bihotza negar eta irri*ko hizkuntza.

Narrazioek kreoleraren eta frantsesaren arteko tentsioan irakurgarri egiten dituzte klase sozialen arteko gatazkak. Jaiotzen denetik hemezortzi urte betetzen dituen arteko garaia kontatu bitartean, egunerokotasuneko talka etengabe, ez-ikusgarri, erabat mundutar mikroskopikoekin borrokatuko da protagonista. Talka horien bitartez pentsatuko du bere burua.

Nahasita irakur daitezke egiturazko zapalkuntza arrazialak eta ekonomikoak, generoari dagozkionak eta se-

xualitateari lotutakoak. *Petit-nègreak*, *grand-nègreak*, mulatoak, *pays-blancak*; fabrika-langileak bortxatu birramona eta ezezagunak bortxatu amona; guraso alienatu, neba komunista, eta larru-beltz maskara-zuri protagonista; jendailakume, zerbitzari, funtzionario, burgesia ertain-gorako eta magistratuak; eta kolonia eta metropoliaren arteko distantziak. Guztiek desordenatuta eraikiko dute mundua bezala protagonista.

Ezinbestean, gatazkoi hizkuntza-gatazka gehitu behar zaie egiturazko zapalkuntza gisa. Izan ere, frantsesa zein kreolera ez den hizkeran soilik adieraz daitezke Guadalupeko askotariko gatazkak. Hau da, hizkuntza bat ez da soilik borroka-eremu; bada, baita ere, zapalkuntza-gune. ●



MUSIKA

Sentimenduen koktela



E. MORENO ESQUIBEL

OLBE-k antolatutako bi opera:
François Poulenc-en *La voix humaine*
eta Zemlinsky-ren *Eine florentinische
Tragödie*.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Pedro Halffter.

Bakarlariak: Nicola Beller Carbone
(sopranoa), Giorgio Berrugi (tenorea),
Carsten Wittmoser (baritonoa).

Eszena zuzendaria: Paco Azorín.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Plazer izugarria da Euskalduna Jauregian emakumeen ariman sakontzen duten XX. mendeko bi lan hauez gozatu ahal izatea. Gutxitan izango dugu opera labur, bizi eta, argumentuari dagokionez, gogor hauek entzuteko aukera, benetan oso gutxitan programatzen direlako. Eta, egia esan, ezin dugu ulertu zergatik ez diren maizago antzeztzen, bai musikaren ikuspegitik, bai literaturaren ikuspegitik, lan nabarmenak eta oso interesgarriak baitira.

Azken batean, desengainua, mendekotasun emozionala, desleialtasuna, damua, traizioa... ikusi ditugu Euskalduna Jauregian; une batean edo bestean ia guztiok inbaditzen gaituzten sentimendu horiek guztiak. Eta sentimendu horiek ez ditu edonork aztertu, Jean Cocteau-ren eta Oscar Wilde-ren moduko autoreek baizik.

La voix humaine lanean, Cocteau emakume suntsitu baten degradazio pro-

zesuaz hitz egiten digu, sentitzen duen menpeko maitasunak oinazetuta, gizon bati lotuta, askatasuna eta duintasuna galduta dagoena. Nahiz eta duela hiru rogei urte baino gehiago estreinatutako obra izan testuaren sakontasuna hain da handia, non arimaren barreneraino sartzen baitzaigu. Horrez gain, Francis Poulenc-en musika gozoak, nolabaiteko hoztasunaz tindatuak, osotasun txundigarria egiten du. Nicola Beller Carbone sopranoaren interpretazioak, adierazkorrak, arina, oso sinesgarria, saioa biribildu zuen. Hamar puntu, benetan.

Beste plano batean, traizio, desleialtasun eta damuen planoan, berriro ikusi genuen Beller Carbone, Alexander von Zemlinskyren *Eine florentinische Tragödie* (Wilde-ren testuarekin) operan Bianca-ren papera antzeztzen. Oso obra laburra da, ordubete eskasekoa, eta hiru interpreteak, sopranoa, baritonoa eta

tenorea, lehian eta elkarlanean aritzen dira benetako tentsio interpretatiboa eta musikala sortzeko. Berriz ere, Nicola Beller Carboneren interpretazioa, nire ustez, bikaina da. Bere indarrak, musikalki ez ezik, testu honek proposatzen dituen emozio guztietatik igarotzen den aktore gisa ere hartzen gaitu. Eta bai Giorgio Berrugi tenoreak Guidoren, Biancaren maitalearen, paperean, bai Carsten Wittmoser baritonoak Simoneren, protagonistaren senarraren paperean, bere ahots biribilak erakustez gain, adierazkortasun alardea egin zuten, beren pertsonaien zorrozatasuna, ironia eta amorrua modu sotilean agertuz.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Pedro Halffter-en zuzendaritzapean, behar bezala aritu zen, ekintza azpimarratuz, baina protagonismorik gabe. Nabaritzen zen, baina ez zuen inbaditzen. Oso ongi. ●



Iragana eskuetan

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Eskuek askotariko sinbologia dute. Eskuekin gidatzen da mundua eta ukabil sendoeekin bermatu agintea. Ukabilekin borrokatzen da bosterea ere, atzamarrak bilduz eta eskuak gora altxatuz. Eskuak beharrezkoak dituzte bizitzan beti galtzaile izan direnek, hori baino ez baitute izan bizirauteko lanabes. Eskuetan ditugu idatziak gure iragana eta etorkizuna. Eskuekin josten dugu gure gizartearen kontakizuna. Esku askoren artean –Esti Maguregi, Argenis Mesa, Marta Brancas eta Irune Lauzirika– sortu dute *Latsariak* dokumentala, Bilboko auzoetako garbitegiei eta han lan egiten zuten emakumeei buruzkoa. Hitza eman diete errealitate hura ezagutu zuten hainbat emakumeri, guztien artean esku ahurretan idatzita duten kontakizuna sortzeko, bizi izan zutenaren testigantza emateko.

Dokumentala hasi baino lehen *performance* labur bat egin da Bilboko Hika

Ateneoan. Emakume batek izara zuri bat garbitu eta eskegi du agertoki gainean zintzilik dauden soketan. Izararekin dantzan bere barnean galdu da, izara zuriak gatibu hartu izan balu bezala. Latsarien bizitza ere halakoxea izan zen: lanaren esklabo, ihes egiteko aukerarik gabea. Uretan eman zuten bizi osoa, eskuak harrien kontra kolpatuz. Batzuetan beraien etxeko arropak garbitzen zituzten, beste batzuetan besteenak, betiere soldata urriaren truke.

Eskuak iraganaren eta geroaren arteko lotura dira. Latsariak existitzen ez den Bilbo bati buruz hitz egiten digute. Meatzeetako langileen arropak edo langile auzoetako etxeko arropa garbitzeko erabiltzen ziren toki horiek pixkanaka-pixkanaka desagertu ziren iragan mendeko erdialdean. Kontsumo gizartearen gailentzearekin eta garbigailu automatikoak langile etxeak kolonizatzearekin batera, espazio fisikoa ez ezik,

'LATSARIAK' DOKUMENTALA

NON: Hika Ateneoa (Bilbo)

NOIZ: Otsailak 9



lanbide horrekin lotutako bizimodua ere jan zuen kapitalismoak. Ibaiak kutsatu ziren fabriken isurien erruz eta Bilbo dena irensten zuen munstro bilakatu zen.

Garbitegiak elkargune izan ziren bertan arropa garbitzera zihoazen emakumeentzat, sororitate eremuak eta babes tokiak izan ziren. Bertan orduak ematen zituzten beste emakumeen konpainian, gizonen begirada zelatarietatik urrun, gizonak ez baitziren hurbiltzen, garbitokiko zaindaria ez bazen. Babes gu-neak bai, baita kaiolak ere, garbitegiak diziplinarako lanabesak baitziren. Leku heze horiek gogorarazten zieten bertan biltzen ziren emakumeei zein zen gizarteak beraientzat erabaki zuen tokia, zein beren funtzioa. Lanak itota ematen zuten eguna. Inoiz ahanztu ez dezaten sortu zitzaizen gantxera: eskuetako mina. Esku tolestuak, uraren formakoak, dira haien bizitzaren testigantza. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA
IÑAKI ABADEK, ALTSASUKO GAZTEAK, ESANDAKO
ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE,
LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8	5	6					4
	3		8	9		6	1	5
4	9		7			2	8	3
	1			6		3	5	7
		4		7	8			
9	7	3		5	2	8		6
3				4	1		6	
	5			8	7	4		
	4	1	9			5	2	

ERRAZA


6		9		7		4		
			2				9	5
7		5	4				8	
4	7		1					
	3			9	4	5		
5							7	
8		3		2				
					6			
9							1	3

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Akatsik gabe. 2. Ubeldura. 3. Zein
materialez. 4. Hitzak, berbak. 5. Higuin.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI
BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI,
HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				A	K	E	R	A
2	M				U	L	A	N
3	E	R				A	T	U
4	S	I	G				G	A
5	N	A	H	A				N
6	B	O	R	T	U			

EBAZPENAK

1	8	5	6	2	3	9	7	4
2	3	7	8	9	4	6	1	5
3	4	9		7		2	8	3
4		1			6	3	5	7
5			4		7	8		
6	9	7	3		5	2	8	6
7	3				4	1		6
8		5			8	7	4	
9		4	1	9			5	2

ERRAZA

1	6	8	9	5	7	3	4	2	1
2	1	7	3	4	6	8	5	9	
3	4	9		7		2	8	3	
4		1			6		3	5	7
5			4		7	8			
6	9	7	3		5	2	8	6	
7	3				4	1		6	
8		5			8	7	4		
9		4	1	9			5	2	

ZAILA

PUZLEA: "ERAKUNDE JUDIZIAL GUZTIEN
BABESGABETASUNAREN AURREAN, ONDO
ULERTZEN DUEN GIZARTEA GERATZEN
DA. ESTRASBURGON GALDU ARREN,
JARRAITUKO DUGU SALATZEN."
5XS: 1. ZUZEN, 2. UBELA, 3. ZEREZ,
4. ELEAK, 5. NAZKA.
HIZKI BERAK: 1. SAIAKERA, 2. MAISULAN,
3. ERASIATU, 4. SIGISAGA, 5. NAHASIAN,
6. BORTUSAL.

Jokin Urain Larrañaga

'TXOMIN, AURRERA BOLIE!'
LIBURUAREN EGILEA



ESPETXEA DESERAİKITZEKO, IDATZI

"Jokin Urain naiz, Lastur eta Mendaro arteko Alkorta baserrian jaiotakoa; baserritarra, beraz. Baserri mundu horretatik bizi nahi izan nuen, baina gure kezka politiko eta sozialek bidean hartu eta Iparraldera ihes egitera eraman ninduten, eta Iparraldetik espetxera. Espetxeko urteetan saiatu naiz idazten, espetxea deseraikitzeke, batez ere. Bide horretan egin ditut liburu batzuk. Saiatu naiz beti espetheen, presoan eta senideen inguruko gauzak idazten. Eta kaleratutakoan ere, aukera eman didatenez, segitu dut bide horretatik: *Ametzen liburua*, *Ama-aren etxea*, eta orain hau. Iruditzen zitzaidan merezi zuela ahalegina egitea, gure garaian erreferente eta lider naturala izan zen horren biografia bat egiteko".

"Politikariei zentzu murritzalea ematen diegu, politikara dedikatzen direnak dira. Txomin Iturbe harago zihoan"

Gaztetan, futbol atezaina zelarik erabiltzen omen zuen Txomin Iturbe ETako buruzagi historikoak "Aurrera bolie!" esaldia, baloia aurreraka botatzen zuenean. Aljerian 1986an hil baino gutxi lehenago eskuz idatzitako postal batzuetan ere utzi zuen esaldia, bere sinaduraren ondoan. "Bere heriotzarekin beste dimentsio bat hartu zuen esaldi horrek; batzuk gure esaldi modura hartu genuen", dio, 35 urtera, Jokin Urainek. Sinboloaren sinbolo, nolabait. Agian horregatik eraman du esaldia osatu duen liburuaren titulura, pertsonaiaren biografiarekin batera geroratu dadin esaldia ere. Txomin Iturbe zena ezagutu zutenen testigantzekin osatu du biografia, bere garaia kronika ere badena.

✂ ANDER PEREZ 📷 JOSU SANTESTEBAN

Zergatik orain?

Orain arte ezinezkoa izan delako, batez ere testigantza emaileek memorian duten horretatik egin behar zelako Txominen [Iturbe] biografia, eta testigantza emaile horiek oraindik ere erreparo handiegia ziotelako hainbat gauza kontatzeari, izan dezakeen ondorio judizialengatik, batik bat.

Bere belaunaldiaren adibide gisara azaldu duzu Txomin Iturbe. Zein da belaunaldi hori?

Espainiar Gerra Zibila deitu hori bukatzen ari denean jaio zena, eta gizarte zanpatu eta etsipenean eroritako hartatik burua jaso eta diktaduraren harropuzkeriari aurre egiten ausartu zen lehen belaunaldia. Belaunaldi horrek demostratzen du

diktadura itxuraz ahalguztidun horren aurka egin daitekeela borrokan, aurre egin dakiokela.

60ko hamarkadaz ari zara...

Joxe Manuel Pagoaga Peixotok esaten du 60ko hamarkada ereintza aroa izan zela. Euskal kutsua izan zezakeen edozer gauza ingurune publikotik eta pribatutik desagerrarazia eta zanpatua zegoen gizarte horretan erein zuten. Hor sortu zen euskal kantagintza berria, hor ezarri ziren euskara batuaren oinarriak, kooperatibismoa sortu zen, nekazaritzaren mekanizazioa, euskal jaiak ere ospatzen hasi ziren... Euskal gizartearen irakite bat zegoen, beste modu bateko Euskal Herria imajinatzen hasi zen belaunaldi bat.

"Aldamiotik erorita hil zen Txomin. Aljeriar zerbitzu sekretuek eta ETak adostu zuten auto istripu modura azalduko zutela heriotza. Horrela, nolabait estali nahi zuten han errefuxiatu gehiago zeudela".



Nondik iritsi zen Iturbe mugimendu horretara?

Euskaltzaletasunetik batez ere, bere euskalduntasunetik. Euskararena izan zen haien lehen talka. Baserritar hauek, kalera iristean, erdararen munduarekin izan zuten lehen talka. Kanean gaztele-raz mintzatzen zitzaizkien, *borono* esaten zieten, *kaxero*. Garai horretan ere kantatzen zuen Lourdes Iriondok "gazte gara gazte eta ez gaude conforme". Konforme ez zegoen gazteria hori izan zen nolabait [ETA] erakundean sartu zena, ikusten zutelako erakunde horrek aurre egiten ziola frankismoari.

Bide horrek erbestera eraman zuen Iturbe 1968an. Baina ez da eten bat bere militantzian.

Edozein errefuxiaturen bizitzan izan zitekeen eten bat. Baina badaude hainbat militante, uste zutenak Iparraldean ere jarraitu behar zuela beren militantzia politiko armatuak, eta baita sozialak ere. Horregatik joan ziren Iparraldeko kos-

tatik barnealdera, Garruzera, barruko gizarte horretan integratu, lan egin eta bizitzera. Negutegiak jarri zituzten, eta han elkartu ziren Eustakio Mendizabal *Txikia*, *Argala*, Txomin bera... Nekazaritzaren bitartez integratu nahi zuten, nekazaritzaren mundua mundu euskalduna zelako Ipar Euskal Herrian, nahiz eta ez izan abertzalea, kontzienteki behintzat.

Hainbatetan saiatu ziren talde parapolizialak hura akabatzen. Nola bizi zuen hori?

1975ean autoa leherrarazi zioten etxe atarian, eta zaurituta atera ziren bera eta semea. Peixotok kontatzen du bera atentatua izan eta ordu erdira iritsi zela etxera, eta auto berria erostera eramateko eskatu ziola Txominek. Autoa erosi zuten eta orduan esan zion: "Orain goazen gozotegi batera". Pastelak erosi zituen etxera eramateko. "Gauzak garratz dardenean goxo pixka batek on egiten du", halako zerbait esan omen zuen. Hori zen Txomin.

Aljerian deportatua hil zen. Nola iritsi zen hara?

Txomin 1986an atxilotu zuten Iparraldean, espetxean egon zen, eta handik Gabonera eraman zuten, eta Gabonetik Aljeriara. Ordurako bazegoen Espainiako Gobernuaren eta ETaren arteko el-karrizketen zurrumurrua. Hara iritsi eta gutxira hasi ziren gauzatzen ofizialki harreman horiek. Txomin bitan bildu zen gobernu espainiarraren ordezkariekin. Baina laster suertatu zen bere heriotza eragin zuen istripua.

Auto istripu gisara kontatu zuten garaian. Baina ez zen hala izan, ezta?

Ez. Txomin iritsi zenerako, Aljerian ba-zeuden beste hainbat euskal errefuxiatu, baina klandestinoki, aljeriar gobernuaren eta erakundearen arteko harremanen bitartez hara joanak. Baina ofizialki, Txomin zen bakarra. Aljeriarrek komentu bat eman zieten euskal errefuxiatuei, han bizi zitezen. Komentu hori egokitze-ko lanetan ari zirela, kaperako leihoak pintatzen ari zela, aldamiotik erori zen Txomin, eta han hil zen. Orduan, aljeriar zerbitzu sekretuek eta ETak adostu zuten auto istripu modura azalduko zutela heriotza. Horrela, nolabait estali nahi zuten han errefuxiatu gehiago zeudela. ETAr ere interesatzen zitzaion, noski.

Heriotzak are gehiago indartu zuen Txomin Iturberen figura. Politikari bat baino gehiago zela esan izan duzu.

Politikariei halako zentzu murriztailea ematen diegu, politikara dedikatzen diren horiek dira. Txomin harago zihoan, iristen zen esparru politikotik esparru humanora, sentimenduen esparrura. Militanteen, ezagunen eta hainbat euskal politikariren artean ere bazuen estima, erreferentzialtasuna, lider izaera; bere izateko moduagatik irabazia, harremantzen zuen jarreragatik. Bazekien puntu komunak bilatzen, eta ez ezberdintasunak.

Zein da historia kontatzearen eta pertsonalismoetan erortzearen arteko oreka?

Badugu pertsonalismoen aurkako jarrera bat, eta ondo iruditzen zait, itsusia ere badelako pertsona batzuen adorazioan erortzea. Baina edozein kolektibo pertsonen osatzen dute, eta pertsona bakoitzak badu bere izaera, baditu bere nekeak, bere pozak, eta bakoitzaren zera horiekin guztiekin osatzen da azkenean kolektiboa. Bakoitzaren ezpala horiek biltzeak ez dio ezer kentzen kolektibotasunari. ●

Lurralde okupatuak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Zisjordania, Mendebaldeko Sahara, Krimea eta orain zure etxe pareko espaloia. Noiz demontre kendu behar dituzte covidaitzakian taberneko anexionatutako terraza horiek? Ba ez dago batere argi. Agindu kontraesankorrak. Behe lainoa. Etsaia identifikatzea ere kosta egiten da –birusa zen? Atzeraldi ekonomikoa? Litroak egiten dituzten gazteak?–. Terrazak, politikaren jarraipena beste bide batzuetatik.

Prentsan Ezkerraldeko mugimenduen berri: Barakan hasi dela jada kalearen birkonkista, baina Portun ez, “ostalariek inauteriak aprobetxatu ahal izateko”. Donostian alkatea pentsakor, pixka bat itxarotea komeni dela –nola ez duzu itxarongo, gremioko buruak 300 pelikulako Leonidasen kuadrilla bezala ikusten badituzu, “ez ukitu gure tralala, a-hu!” oihu egiten: jende horrek beldurra ematen du–. Bilbon ere luzamendutan: Aburtok erronda egingo duela sektorekoekin –ez dakigu zentzu metaforikoan ala tabernaz taberna; edozer gauza espero liteke, komertzio txikia irmokiro defendatzeko alkandorra bat erosi zuela *urbi et orbi* iragarri zuenetik–. Iruñean, Maya terrazetako batzuk mantentzearen alde, zezen-plazaren inguruan eta –ez du esan zerbait edateko azal kolore konkreturen bat eduki beharko ote den, gaitzerdi–.

A, azkenean, hemen dago fronteko lehen lerroa: Gasteiz. Gerra-parteario ordenantza berri bat onartu dutela, urte osoan terraza estaliak baimenduko dituen eta tabernei aukera emango diena argindarra eta berogailuak jartzeko. Pintxo eta kafiak dekoratutako arkitektura neotxabolista horretatik abiatuta, laster dugu baten bat kaleari kendutako metroak Idealistan iragar-



DANI BLANCO

tzen, “loft polita hiriaren erdi-erdian” edo antzeko esaldiren batekin.

Ez duzu manifestaziorik ikusiko pandemiari esker taberneko lortu dituzten espaloio zatiak herriari itzultzeko eskatuz. Bueno, ez dut uste –egia esan, Manifologia nahiko diziiplina konplexua bihurtu da garai moderno hauetan, gauza oso arraroengatik ateratzen da jendea kalera, adibidez *vapping*-ak bizitzak salbatzen dituela aldarrikatzeko–. Terrazaren kontu honekin, ordea, gertatzen da Schrödingerren katuarena: une berean egon zaitezke bi egoera itxuraz antagonikotan. Terrazaren erabat kontralde.

Teorikoki, zibikoki, ilustratuki, totxoki, badakizu ez dagoela eskubiderik negozio batzuek kale-puskak horrela irensteko. Eta alkateren batek ostalari rude clubaren aurrean burua makur-

tzen badu, kritikatzeko duzu. Eta ateratzen zaizkizu “espazio publikoaren okupazioa” bezalako tramankuluak ahotik. Eta abar. Baina gero iristen da aste gogor baten ondoren zerbait hartu nahi duzun momentu hori, zeinean garagardo hotz baten aparrak dirudien Rapunzelen adatsa; zeinean pasatzen zaren “terrazak” abstraktutik “eserita nagoen terraza hau” konkretura; zeinean, zintzurrean behera doan nekta-rrarekin batera, “ostalarien *lobby*-a” pentsamendutik desagertzen den; zeinean zure burua engainatzen duzun, “tragoa atera digun pertsona honek ere bizi beharko du ba” esanez.

Momentu horrek zerbait esplikatzeko digu bizi garen makinaren mekanikaz: niberismoaren arma nagusiak ez direla kontzeptuak, ohiturak baizik. ●

2. argitaraldia



Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea



248 orrialde

25€

+ 4€

bidalketa
gastuak

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.



azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik **08:00**etatik **15:00**etara
(beste ordutegiak aurrez kontsultatu).



ARGIA

BIZI BARATZEA

22. korrika *æk* KULTURALA

HITZEKIN

Hautsi da Amphora

RUPER ORDORIKA & MUGALARIS
ETA BERNARDO ATXAGA



korrika.eus



LAGUNTZAILEA:  ARGIA

Hautsi da Anphora

Martxoak 6

Senpere

Larreko kultur gunean 17:00

Martxoak 10

Iruñea

Gayarre antzokian 19:30

Martxoak 11

Bilbo

Euskalduna jauregian 20:00

Martxoak 20

Eibar

Coliseo antzokian 19:00

Martxoak 25

Gasteiz

Printzipal antzokian 19:30

Martxoak 27

Orereta

Lekuona fabrikan 18:30